

Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen
Jurídico del Sector Público.

40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore
Publikoaren Araubide Juridikoarena.

FELIPE VI

FELIPE VI.a

REY DE ESPAÑA

ESPAINIAKO ERREGEA

A todos los que la presente vieren y
entendieren.

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Sabed: Que las Cortes Generales han
aprobado y Yo vengo en sancionar la siguiente
ley:

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau
onetsi dutela eta Nik berretsi egiten dudala.

PREÁMBULO

HITZAURREA

I

I

El 26 de octubre de 2012 el Consejo de
Ministros acordó la creación de la Comisión
para la Reforma de las Administraciones
Públicas con el mandato de realizar un estudio
integral dirigido a modernizar el sector público
español, dotarle de una mayor eficacia y
eliminar las duplicidades que le afectaban y
simplificar los procedimientos a través de los
cuales los ciudadanos y las empresas se
relacionan con la Administración.

2012ko urriaren 26an, Ministro Kontseiluak
Administrazio Publikoak Erreformatzeko
Batzordea sortzea erabaki zuen, agindu hauek
betetzeko: Espainiako sektore publikoa
modernizatzeko osoko azterlana egitea, sektore
horri efikazia handiagoa ematea eta kalte
egiten zioten bikoiztasunak desagerraraztea,
baita herritarrek eta enpresek
Administrazioarekin harremanetan jartzeko
erabiltzen dituzten prozedurak erraztea ere.

El informe, que fue elevado al Consejo de
Ministros el 21 de junio de 2013, formuló 218
propuestas basadas en el convencimiento de
que una economía competitiva exige unas
Administraciones Públicas eficientes,
transparentes, ágiles y centradas en el servicio
a los ciudadanos y las empresas. En la misma
línea, el Programa nacional de reformas de
España para 2014 establece la necesidad de
impulsar medidas para racionalizar la actuación
administrativa, mejorar la eficiencia en el uso de
los recursos públicos y aumentar su
productividad.

Ministro Kontseiluari 2013ko ekainaren 21ean
igorritako txostenean, 218 proposamen egin
ziren, honako ziurtasun honetan oinarrituta:
ekonomia bat lehiakorra izango bada,
administrazio publikoek efizienteak, gardenak
eta arinak izan behar dute, eta herritarrentzako
eta enpresentzako zerbitzua hartu behar dute
ardatz. Ildo berean, 2014an Espainian egiteko
erreformen Programa nazionalak ezartzen
duenez, neurri batzuk bultzatu behar dira
administrazio-jarduketara arrazionalizatzeko,
baliabide publikoak efizientzia handiagoz
erabiltzeko eta haien produktibitatea
handitzeko.

Este convencimiento está inspirado en lo que
dispone el propio artículo 31.2 de la
Constitución Española, cuando establece que el

Asmo sendo horren iturburua Espainiako
Konstituzioaren 31.2 artikulua da, honako hau
ezartzen baitu: «Gastu publikoak ekitatez

gasto público realizará una asignación equitativa de los recursos públicos, y su programación y ejecución responderán a los criterios de eficiencia y economía.

Como se señala en el Informe de la Comisión para la Reforma de las Administraciones Públicas (en adelante CORA), la normativa reguladora de las Administraciones Públicas ha pasado por diferentes etapas. Tradicionalmente, las reglas reguladoras de los aspectos orgánicos del poder ejecutivo estaban separadas de las que disciplinaban los procedimientos. Esta separación terminó con la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, que unificó en un solo instrumento estas materias.

La evolución normativa posterior se ha caracterizado por la profusión de leyes, reales decretos y demás disposiciones de inferior rango, que han completado la columna vertebral del derecho administrativo. De este modo, nos encontramos en el momento actual normas que regulan aspectos orgánicos, como la Ley 6/1997, de 14 de abril, de organización y funcionamiento de la Administración General del Estado; la Ley 50/1997, de 27 de noviembre, del Gobierno y la Ley 28/2006, de 18 de julio, de Agencias estatales para la mejora de los servicios públicos; y otras que tratan aspectos tanto orgánicos como procedimentales de la citada Ley 30/1992, de 26 de noviembre; o la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los servicios públicos, por citar las más relevantes.

Resulta, por tanto evidente, la necesidad de dotar a nuestro sistema legal de un derecho administrativo sistemático, coherente y ordenado, de acuerdo con el proyecto general de mejora de la calidad normativa que inspira todo el informe aprobado por la CORA. En él se previó la elaboración de dos leyes: una, reguladora del procedimiento administrativo, que integraría las normas que rigen la relación de los ciudadanos con las Administraciones.

banatuko ditu baliabide publikoak, eta haren programazioak eta betearazpenak efizientzia-eta ekonomia-printzipioak beteko dituzte».

Administrazio Publikoak Erreformatzeko Batzordearen (aurrerantzean APEB) txostenak dioenez, administrazio publikoen araudi erregulatzailerak hainbat etapa izan ditu. Tradizioz, alde batetik, bereizten ziren botere betearazlearen alderdi organikoak arautzen zituzten erregelak, eta, bestetik, prozedurak arautzen zituztenak. Bereizketa hori amaitu egin zen Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearekin, lege hark gai horiek tresna bakar batean bateratu zituelako.

Gerora, ugari izan dira legeak, errege-dekretuak eta maila txikiagoko gainerako xedapenak; horiek guztiek osatu dute administrazio-zuzenbidearen bizkarrezurra. Hala, gaur egun, egoera honako hau da: alde batetik, alderdi organikoak arautzen dituzten legeak daude, adibidez, eta garrantzitsuenak aipatzearren, Estatuaren Administrazio Orokorren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legea; Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legea, eta Zerbitzu Publikoak Hobetzeko Estatu Agentziei buruzko uztailaren 18ko 28/2006 Legea; eta, beste aldetik, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen alderdi organikoak eta prozedurazko alderdiak lantzen dituzten beste lege batzuk; edo Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa Izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea.

Beraz, agerikoa da gure lege-sistema administrazio-zuzenbide sistematiko, koherente eta ordenatu batez hornitu behar dela, APEBek onartutako txosten osorako inspirazio-iturri den arauen kalitatearen hobekuntzarako proiektu orokorarekin bat etorritik. Proiektu hartan bi lege egitea aurreikusi zen: lege bat, administrazio-prozedura arautzekoa, herritarren eta administrazioen arteko harremanei buruzko arauak jasoko litzukeena. Beste legea,

Otra, comprensiva del régimen jurídico de las Administraciones Públicas, donde se incluirían las disposiciones que disciplinan el sector público institucional. Con ello, se aborda una reforma integral de la organización y funcionamiento de las Administraciones articulada en dos ejes fundamentales: la ordenación de las relaciones ad extra de las Administraciones con los ciudadanos y empresas, y la regulación ad intra del funcionamiento interno de cada Administración y de las relaciones entre ellas.

La presente Ley responde al segundo de los ejes citados, y abarca, por un lado, la legislación básica sobre régimen jurídico administrativo, aplicable a todas las Administraciones Públicas; y por otro, el régimen jurídico específico de la Administración General del Estado, donde se incluye tanto la llamada Administración institucional, como la Administración periférica del Estado. Esta Ley contiene también la regulación sistemática de las relaciones internas entre las Administraciones, estableciendo los principios generales de actuación y las técnicas de relación entre los distintos sujetos públicos. Queda así sistematizado el ordenamiento de las relaciones ad intra e inter Administraciones, que se complementa con su normativa presupuestaria, destacando especialmente la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, la Ley 47/2003, de 26 de noviembre, General Presupuestaria y las leyes anuales de Presupuestos Generales del Estado.

Se conserva como texto independiente la Ley del Gobierno, que por regular de forma específica la cabeza del poder ejecutivo de la nación, de naturaleza y funciones eminentemente políticas, debe mantenerse separada de la norma reguladora de la Administración Pública, dirigida por aquél. De acuerdo con este criterio, la presente Ley modifica aquella, con el objeto de extraer aquellas materias que, por ser más propias de la organización y funciones de los miembros del

administrazio publikoen araubide juridikoa jasoko lukeena; lege horretan sartuko lirateke sektore publiko instituzionala arautzen duten xedapenak. Hala, administrazioen antolaketa eta funtzionamendua osorik erreformatzeari heldu zaio, oinarrizko bi ardatzen inguruan: administrazioen eta herritarren nahiz enpresen arteko harremanak *ad extra* antolatzea, eta administrazio bakoitzaren barne-funtzionamendua eta administrazioen arteko harremanak *ad intra* arautzea.

Lege hau bi ardatz horien artean bigarrena da, eta, alde batetik, barnean hartzen du araubide juridiko administratiboari buruzko oinarrizko legeria, administrazio publiko guztiei aplikatu beharrekoa; eta, bestetik, Estatuaren Administrazio Orokorraren araubide juridiko espezifikoa, horren barruan sartzen direlarik Administrazio Instituzionala nahiz Estatuaren Administrazio Periferikoa. Lege honetan biltzen da, halaber, administrazioen arteko barne-harremanen arauketa sistematikoa; alde horretatik, jarduketa-printzipio orokorrak nahiz subjektu publiko batzuen eta besteen arteko harremanen teknikak ezartzen dira. Hala, sistematizatuta geratzen da administrazioen *ad intra* eta *inter* harremanen ordenamendua. Horren osagarria da aurrekontu-araudia, horretan bereziki nabarmentzen direlarik Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorra eta Estatuaren aurrekontu orokorren urteko legeak.

Gobernuari buruzko Legea testu independente gisa mantentzen da. Berariaz nazioaren botere betearazlea arautzen duenez eta batik bat izaera eta eginkizun politikoak dituzenez, Administrazio Publikoaren araudi erregulatzailetik berezita mantendu behar da, Gobernuak zuzentzen baitu Administrazio Publikoa. Irizpide horren arabera, lege honek hura aldatzen du, gai batzuk bertatik ateratzeko. Hain zuzen ere, gai horiek administrazio-organo diren Gobernuako kideen

gobierno en cuanto que órganos administrativos, deben regularse en este texto legal.

El Informe CORA recomienda reformar el ordenamiento jurídico administrativo no solo por razones de coherencia normativa y política legislativa. Las Administraciones Públicas, lejos de constituir un obstáculo para la vida de los ciudadanos y las empresas, deben facilitar la libertad individual y el desenvolvimiento de la iniciativa personal y empresarial. Para ello es imprescindible establecer un marco normativo que impida la creación de órganos o entidades innecesarios o redundantes, y asegure la eficacia y eficiencia de los entes públicos, ejerciendo sobre ellos una supervisión continua que permita evaluar el cumplimiento de los objetivos que justificaron su creación, y cuestionar su mantenimiento cuando aquellos se hayan agotado o exista otra forma más eficiente de alcanzarlos.

La Organización para la Cooperación y Desarrollo Económico (en adelante OCDE), ha valorado la reforma administrativa emprendida por la CORA de forma muy positiva. En el informe emitido sobre ella, señala que el paquete de reforma es resultado de un riguroso proceso de recolección de datos, diálogo entre profesionales y diagnóstico de las debilidades de la Administraciones Públicas españolas. Considera la OCDE que el conjunto de asuntos políticos incluidos en la reforma (por ejemplo, gobierno electrónico, relaciones de gobernanza multinivel, buena regulación, reformas presupuestarias), junto con las iniciativas paralelas adoptadas en los dos últimos años en áreas como estabilidad presupuestaria, transparencia y regeneración democrática, explica uno de los más ambiciosos procesos de reforma realizados en un país de la OCDE. La presente Ley, por tanto, no representa el único instrumento normativo que materializa la reforma, Pero sí constituye, junto con la que disciplinará el procedimiento administrativo, de tramitación paralela, y las ya aprobadas sobre

antolaketari eta eginkizunei dagozkie, eta horregatik lege-testu honetan arautu behar dira.

APEBen txostenak ordenamendu juridiko administratiboa erreformatzea gomendatzen du, ez soilik araugintzako koherentziaren eta legegintzako politikaren arrazoiengatik. Administrazio publikoek ez dute oztopo izan behar herritarren eta enpresen bizitzarako; aitzitik, norbanakoen askatasuna eta pertsonen eta enpresen ekimena bideratu behar dituzte. Horretarako, ezinbestekoa da arau-esparru bat ezartzea. Esparru horrek eragotzi egingo du organo edo erakunde alferrikako edo erredundanteak sortzea, ente publikoen efikazia eta efizientzia ziurtatuko ditu, eta ente horiek etengabe gainbegiratuko ditu, halakoak sortzeko justifikazio izan ziren helburuak noraino betetzen diren ebaluatu ahal izateko, helburu horiek agortzen direnean edo halakoak lortzeko modu efizienteago bat dagoenean ente horiek mantendu beharra auzitan jarri ahal izateko.

Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak (aurrerantzean ELGE) oso positiboki baloratu du APEBek Administrazioa erreformatzeari ekin izana. Erreforma horri buruz egindako txostenean azaltzen duenez, erreformaren paketea datuen bilketako, profesionalen arteko elkarrizketako eta Espainiako administrazio publikoaren ahultasunen diagnostikoko prozesu zorrotz baten emaitza da. ELGEren ustez, ELGEko herrialde batean egindako erreforma-prozesurik handienetako baten ezaugarriak dira erreforman sartzen diren gai politikoak (adibidez, gobernu elektronikoa, maila anitzeko gobernantza-harremanak, araugintza ona, aurrekontu-erreformak) eta, horiekin batera, azken bi urteetan aurrekontu-egonkortasunean, gardentasunean, demokraziaren eraberritzean eta antzeko beste hainbat arlotan hasitako aldibereko ekimenak. Lege hau, beraz, ez da erreforma gauzatzeko araugintza-tresna bakarra, baina etorkizuneko Espainiako Administrazio Publikoaren, herritarren zerbitzura egongo den administrazio publiko

transparencia y buen gobierno y estabilidad presupuestaria, la piedra angular sobre la que se edificará la Administración Pública española del futuro, al servicio de los ciudadanos.

II

La Ley comienza estableciendo, en sus disposiciones generales, los principios de actuación y de funcionamiento del sector público español.

Entre los principios generales, que deberán respetar todas las Administraciones Públicas en su actuación y en sus relaciones recíprocas, además de encontrarse los ya mencionados en la Constitución Española de eficacia, jerarquía, descentralización, desconcentración, coordinación, y sometimiento pleno a la Ley y al Derecho, destaca la incorporación de los de transparencia y de planificación y dirección por objetivos, como exponentes de los nuevos criterios que han de guiar la actuación de todas las unidades administrativas.

La Ley recoge, con las adaptaciones necesarias, las normas hasta ahora contenidas en la Ley 11/2007, de 22 de junio, en lo relativo al funcionamiento electrónico del sector público, y algunas de las previstas en el Real Decreto 1671/2009, de 6 de noviembre, por el que se desarrolla parcialmente la anterior. Se integran así materias que demandaban una regulación unitaria, como corresponde con un entorno en el que la utilización de los medios electrónicos ha de ser lo habitual, como la firma y sedes electrónicas, el intercambio electrónico de datos en entornos cerrados de comunicación y la actuación administrativa automatizada. Se establece asimismo la obligación de que las Administraciones Públicas se relacionen entre sí por medios electrónicos, previsión que se desarrolla posteriormente en el título referente a la cooperación interadministrativa mediante una regulación específica de las relaciones

horren eraikinaren oinarria izango da, aldi berean izapidetzen ari den administrazio-prozedurari buruzko legearekin eta jada onetsi diren gardentasunari eta gobernamendu onari buruzko legearekin eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko legearekin batera.

II

Legeak, hasteko, bere xedapen orokorretan Espainiako sektore publikoaren jarduketa- eta funtzionamendu-printzipioak ezartzen ditu.

Administrazio publiko guztiek beren jarduketan eta elkarrekiko harremanetan zaindu beharko dituzten printzipio orokorren artean daude efikaziaren, hierarkiaren, deszentralizazioaren, deskontzentrazioaren eta koordinazioaren printzipioak, legeari eta zuzenbideari erabat loturik egotearen printzipioaz gain –horiek Espainiako Konstituzioan azaltzen dira–; horiez gain, gardentasunaren printzipioa eta helburuen arabeko plangintzaren eta zuzendaritzaren printzipioa txertatzen dira, administrazio-unitate guztien jarduketaren gidari izan behar duten irizpide berrien erakusgarri diren aldetik.

Ekainaren 22ko 11/2007 Legean sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoari buruz orain arte bildutako arauak eta aurreko lege hori zati batean garatzeko azaroaren 6ko 1671/2009 Errege Dekretuan aurreikusitako arau batzuk biltzen ditu Legeak, beharrezkoak diren egokitzapenekin. Hala, batera arautzea eskatzen zuten gai batzuk txertatzen dira, adibidez sinadura eta egoitza elektronikoak, datuak elektronikoki trukatea komunikazio-ingurune itxietan eta administrazio-jarduketa automatizatua. Hori da egokiena, ingurune honetan ohikoena bitarteko elektronikoen erabilera izango bada. Halaber, administrazio publikoek haien artean harremanetan jartzeko bitarteko elektronikoak erabili beharko dituztela ezartzen da. Aurreikuspen hori geroago garatzen da administrazio arteko lankidetzari buruzko tituluan, administrazioen arteko harreman elektronikoak berariaz arautuz.

electrónicas entre las Administraciones. Para ello, también se contempla como nuevo principio de actuación la interoperabilidad de los medios electrónicos y sistemas y la prestación conjunta de servicios a los ciudadanos.

La enumeración de los principios de funcionamiento y actuación de las Administraciones Públicas se completa con los ya contemplados en la normativa vigente de responsabilidad, calidad, seguridad, accesibilidad, proporcionalidad, neutralidad y servicio a los ciudadanos.

El Título Preliminar regula pormenorizadamente el régimen de los órganos administrativos, tomando como base la normativa hasta ahora vigente contenida en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, en la que se incorporan ciertas novedades. La creación de órganos solo podrá hacerse previa comprobación de que no exista ninguna duplicidad con los existentes. Se completan las previsiones sobre los órganos de la Administración consultiva y se mejora la regulación de los órganos colegiados, en particular, los de la Administración General del Estado, destacando la generalización del uso de medios electrónicos para que éstos puedan constituirse, celebrar sus sesiones, adoptar acuerdos, elaborar y remitir las actas de sus reuniones.

También se incorporan en este Título los principios relativos al ejercicio de la potestad sancionadora y los que rigen la responsabilidad patrimonial de las Administraciones Públicas. Entre las novedades más destacables en este ámbito, merecen especial mención los cambios introducidos en la regulación de la denominada «responsabilidad patrimonial del Estado Legislador» por las lesiones que sufran los particulares en sus bienes y derechos derivadas de leyes declaradas inconstitucionales o contrarias al Derecho de la Unión Europea, concretándose las condiciones que deben darse para que se pueda proceder, en su caso, a la indemnización que corresponda.

Por último, se regulan en el Título Preliminar los convenios administrativos, en la línea prevista en el Dictamen 878 del Tribunal de Cuentas,

Horretarako, jarduketa-printzipio berri gisa aurreikusten da bitarteko elektronikoko eta sistemen elkarreragingarritasuna eta herritarrei zerbitzuak batera ematea.

Administrazio publikoen funtzionamendu- eta jarduketa-printzipioen azalpena osatzeko, indarreko araudian jada aurreikusten diren printzipioak aipatzen dira: erantzukizuna, kalitatea, segurtasuna, irisgarritasuna, proportzionaltasuna, neutraltasuna eta herritarrentzako zerbitzua.

Atariko tituluak xehetasunez arautzen du administrazio-organoen araubidea, azaroaren 26ko 30/1992 Legean biltzen den eta orain arte indarrean egon den araudia oinarri hartuta. Zenbait berrikuntza egiten zaizkio arau horri. Organoak sortu ahal izateko, alde aurretik nahitaez egiaztatu beharko da dauden organoak ez direla bikoiztuko. Administrazio aholku-emailearen organoei buruzko aurreikuspenak osatzen dira eta kide anitzeko organoen arauketa hobetzen da, bereziki Estatuaren Administrazio Orokorraren organoei dagokienez. Alde horretatik, nabarmentzekoa da orokorrean bitarteko elektronikokoak erabiliko direla organo horiek eratu ahal izateko, bilerak egiteko, erabakiak hartzeko eta bileren aktak egin eta bidaltzeko.

Titulu horretan sartzen dira, halaber, zehatzeko ahala baliatzeari buruzko printzipioak eta administrazio publikoen ondare-erantzukizuna eraentzen duten printzipioak. Arlo horretako berrikuntzarik nabarmenenen artean bereziki aipatzekoak dira «Estatu legegilearen ondare-erantzukizuna» delakoan sartutako aldaketak. Hain zuzen Estatuak erantzukizun hori du Konstituzioaren kontrako edo Europar Batasuneko zuzenbidearen aurkako deklaraturako legeengatik partikularrek beren ondasun eta eskubideetan jasaten dituzten kalteengatik. Bada, kasua izanez gero kalte-ordaina eman ahal izateko gertatu behar diren baldintzak zehazten dira.

Azkenik, atariko tituluaren arautzen dira administrazio-hitzarmenak, Kontuen Auzitegiaren 2010eko azaroaren 30eko 878.

de 30 de noviembre, de 2010, que recomendaba sistematizar su marco legal y tipología, establecer los requisitos para su validez, e imponer la obligación de remitirlos al propio Tribunal. De este modo, se desarrolla un régimen completo de los convenios, que fija su contenido mínimo, clases, duración, y extinción y asegura su control por el Tribunal de Cuentas.

irizpenean aurreikusita dagoen ildotik. Irizpen horretan gomendatzen zen hitzarmen horien lege-esparrua eta tipologia sistematizatzea, hitzarmenak baliozkotzeko betekizunak ezartzea eta hitzarmenak auzitegiari berari bidaltzeko betebeharra ezartzea. Hala, hitzarmenen araubide osoa garatzen da. Hitzarmen horien gutxieneko edukia, motak, iraupena eta azkentzea finkatzen dira eta Kontuen Auzitegiak hitzarmen horiek kontrolatuko dituela ziurtatzen da.

III

En relación con la Administración del Estado, el Título primero parte de la regulación contenida en la Ley 6/1997, de 14 de abril, aplicando ciertas mejoras que el tiempo ha revelado necesarias. Se establecen los órganos superiores y directivos propios de la estructura ministerial y también en el ámbito de la Administración periférica y en el exterior. En el caso de los organismos públicos, serán sus estatutos los que establezcan sus órganos directivos.

La Ley regula los Ministerios y su organización interna, sobre la base de los siguientes órganos: Ministros, Secretarios de Estado, Subsecretarios, Secretarios Generales, Secretarios Generales Técnicos, Directores Generales y Subdirectores Generales.

Se integran en esta Ley funciones de los Ministros que, hasta ahora, estaban dispersas en otras normas o que eran inherentes al ejercicio de ciertas funciones, como celebrar en el ámbito de su competencia, contratos y convenios; autorizar las modificaciones presupuestarias; decidir la representación del Ministerio en los órganos colegiados o grupos de trabajo; rendir la cuenta del departamento ante el Tribunal de Cuentas; y resolver los recursos administrativos presentados ante los órganos superiores y directivos del Departamento. La Ley reordena parcialmente las competencias entre los órganos superiores, Ministros y Secretarios de Estado, y directivos, Subsecretarios, Secretarios Generales,

III

Estatuko Administrazioari dagokionez, apirilaren 14ko 6/1997 Legean bildutako arauak hartzen du abiapuntu lehenengo tituluak, denboraren poderioz beharrezkoak direla ikusi diren hobekuntza batzuk aplikatuta. Ministerioen egituran berezkoak diren organo gorenak eta zuzendaritzako organoak ezartzen dira, eta berdin egiten da Administrazio Periferikoaren eremuan eta kanpoan ere. Organismo publikoen kasuan, zuzendaritza-organok haien estatutuetan ezarriko dira.

Ministerioak eta haien barneko antolaketa arautzen ditu Legeak, organo hauek oinarri hartuta: ministroak, estatu-idazkariak, idazkariordeak, idazkari nagusiak, idazkari nagusi teknikoak, zuzendari nagusiak eta zuzendariorde nagusiak.

Lege honetan sartzen dira ministroen eginkizun batzuk, orain arte beste arau batzuetan barreiatuta zeudenak edo bestelako eginkizun batzuetan berezkoak zirenak; adibidez, haien eskumenen barruan kontratuak eta hitzarmenak egitea; aurrekontuen aldaketak baimentzea, ministerioak kide anitzeko organoetan edo lantaldeetan duen ordezkariak erabakitzea, departamentuaren kontuak ematea Kontuen Auzitegiari eta departamentuko organo gorenetan eta zuzendaritza-organoen aurkeztutako administrazio-errekurtsoak ebaztea. Legeak zati batean berrantolatzen ditu eskumenak organo goren, ministro eta estatu-idazkarien eta ministerioetako zuzendari, zuzendariorde, idazkari nagusi, idazkari nagusi

Secretarios Generales Técnicos y Directores Generales de los Ministerios, atribuyendo a ciertos órganos como propias algunas funciones que hasta ahora habitualmente se delegaban en ellos. Y con el objeto de posibilitar las medidas de mejora de gestión propuestas en el Informe CORA, se atribuye a los Subsecretarios una nueva competencia: la de adoptar e impulsar las medidas tendentes a la gestión centralizada de recursos y medios materiales en el ámbito de su Departamento.

Se atribuyen también expresamente a la Subsecretaría del Ministerio de la Presidencia, en coordinación con la Secretaría General de la Presidencia del Gobierno, las competencias propias de los servicios comunes de los Departamentos en relación con el área de la Presidencia del Gobierno. Debe recordarse que, al tratarse de un ámbito ajeno a la estructura del propio departamento ministerial, esta atribución excede del real decreto en que se fije la estructura orgánica de aquél.

Con el objeto de evitar la proliferación de centros encargados de la prestación de servicios administrativos en cada ente o unidad, y facilitar que los mismos se provean por órganos especializados en el ámbito del Ministerio o de forma centralizada para toda la Administración, se prevé la posibilidad de que la organización y gestión de los servicios comunes de los Ministerios y entidades dependientes pueda ser coordinada por el Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas u otro organismo público; o bien por la Subsecretaría de cada departamento.

IV

Sobre la base de la regulación de la Administración Periférica contenida en la Ley 6/1997, la Ley regula los órganos de la Administración General del Estado de carácter territorial, los Delegados y Subdelegados del Gobierno. Como principales novedades respecto a la regulación hasta ahora vigente, destacan las siguientes cuestiones.

tecnico eta zuzendari nagusien artean, eta organo jakin batzuei esleitzen dizkie orain arte haiei delegatzen zitzaizkien eginkizun batzuk. Eta APEBen txostenean kudeaketa hobetzeko proposatutako neurriak ahalbidetzeko, idazkariordeei beste eskumen bat esleitzen zaie: haien departamentuaren eremuan baliabide eta bitarteko materialen kudeaketa zentralizatua egitea xede duten neurriak hartu eta bultzatzeko eskumena.

Halaber, Lehendakaritza Ministerioaren Idazkariordetzari espresuki esleitzen zaizkio, Gobernuko Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiarekin koordinatuta, departamentuen zerbitzu erkideen berezko eskumenak, Gobernuko Lehendakaritzaren arloari dagokionez. Gogora ekarri behar da ministerio-departamentuaren beraren egituratik kanpo dagoen eremua dela. Horregatik, eskudantzia hori ministerio-departamentu horren egitura organikoa ezartzen duen errege-dekretutik harago doa.

Ente edo unitate bakoitzean administrazio-zerbitzuak emateaz arduratzen diren zentroak ugaritu ez daitezen eta zerbitzu horiek ministerioaren esparruan organo espezializatuek eman ditzaten edo Administrazio osoarentzat modu zentralizatuan eman daitezen, aurreikusten da ministerioen eta mendeko erakundeen zerbitzu erkideak Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak edo beste organismo publiko batek antola eta kudea ditzakeela edo, bestela, departamentu bakoitzeko idazkariordetzak.

IV

6/1997 Legean biltzen den Administrazio Periferikoaren arauketa oinarri hartuta, Legeak arautu egiten ditu Estatuaren Administrazio Orokorren lurralde izaerako organoak eta Gobernuaren ordezkariak eta ordezkariordeak. Orain arte indarrean izan den araudiarekin alderatuta, berrikuntza hauek dira garrantzitsuenak:

En cuanto a los Delegados del Gobierno, se refuerza su papel político e institucional, se les define como órganos directivos, y se dispone que su nombramiento atenderá a criterios de competencia profesional y experiencia, siendo de aplicación al desempeño de sus funciones lo establecido en el Título II de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

Se mejora la regulación de su suplencia, vacante o enfermedad, correspondiendo al Subdelegado del Gobierno que el Delegado designe. En caso de no haber realizado formalmente la designación, y cuando se trate de una Comunidad uniprovincial que carezca de Subdelegado, la suplencia recaerá sobre el Secretario General.

Las competencias de los Delegados del Gobierno, que hasta ahora eran recogidas en diversos preceptos, pasan a estar reguladas en un único artículo, sistematizándolas en cinco categorías: competencias de dirección y coordinación; de información de la acción del Gobierno y a los ciudadanos; de coordinación y colaboración con otras Administraciones Públicas; competencias relativas al control de legalidad; y competencias relacionadas con el desarrollo de las políticas públicas.

Se recoge expresamente en la Ley la competencia atribuida a los Delegados del Gobierno en la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, de Patrimonio de las Administraciones Públicas, referente a la coordinación de los usos de los edificios de la Administración General del Estado en su ámbito de actuación, de acuerdo con las directrices establecidas por el Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas y la Dirección General de Patrimonio del Estado.

Respecto de los Subdelegados del Gobierno, se concretan los requisitos de titulación para ser nombrado Subdelegado del Gobierno, de tal manera que ahora se indica el subgrupo funcional al que debe pertenecer. En cuanto

Gobernuaren ordezkarietara dagokienez, haien zeregin politikoa eta instituzionala indartzen da, zuzendaritza-organo gisa definitzen dira, eta xedatzen da halakoak izendatzeko gaitasun profesionalaren eta esperientziaren irizpideei erreparatuko zaiela. Haien eginkizunak betetzeari dagokionez, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen II. tituluan ezarrita dagoena aplikatuko da.

Gobernuaren ordezkariak ordeztearen, lanpostu hutsen edo gaixotasunen inguruko alderdiak hobeto arautzen dira, eta hori ordezkariak izendatzen duen Gobernuaren ordezkariordeari egokituko zaio. Izendapena modu formalean egin ez bada, eta ordezkariordeari ez duen probintzia bakarreko erkidegoa denean, ordezkotza idazkari nagusiak egin beharko du.

Gobernuaren ordezkarien eskumenak orain arte hainbat manutan biltzen ziren. Orain, artikulua bakarrean arautuko dira, bost kategoriatan sistematizatuta: zuzendaritzako eta koordinazioko eskumena, Gobernuaren ekintzari buruzko eta herritarrentzako informazioa ematea, beste administrazio publiko batzuekiko koordinazio eta elkarlana, legezketasun-kontrolari buruzko eskumenak, eta politika publikoen garapenarekin lotutako eskumenak.

Legean espresuki jasotzen da Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean Gobernuaren ordezkarietara esleitzen zaien eskumena, haien jarduketan eremuan Estatuaren Administrazio Orokorren eraikinen erabilerak koordinatzeari buruz, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak eta Estatuaren Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak ezarritako gidalerroen arabera.

Gobernuaren ordezkariordeetara dagokienez, norbait Gobernuaren ordezkariorde izendatzeko titulazioari buruzko betekizunak zehazten dira; hala, orain azaltzen da funtzionarioen zein azpitaldetan egon behar

a las competencias de los Subdelegados del Gobierno, y como novedad más relevante, se le atribuye la de coordinar la utilización de los medios materiales y, en particular, de los edificios administrativos en el ámbito de su provincia.

Se recoge legalmente la existencia de un órgano que se ha revelado como fundamental en la gestión de las Delegaciones y Subdelegaciones, la Secretaría General, encargada de la llevanza de los servicios comunes y de la que dependerán las áreas funcionales. También se establece a nivel legal que la asistencia jurídica y el control financiero de las Delegaciones y Subdelegaciones del Gobierno serán ejercidos por la Abogacía del Estado y por la Intervención General de la Administración del Estado, respectivamente, cuestión anteriormente regulada por normativa reglamentaria.

La Ley también prevé expresamente la existencia de la Comisión Interministerial de Coordinación de la Administración Periférica del Estado, cuyas atribuciones, composición y funcionamiento serán objeto de regulación reglamentaria.

Por lo que se refiere a la Administración General del Estado en el exterior, se efectúa una remisión a la Ley 2/2014, de 25 de marzo, de la Acción y del Servicio Exterior del Estado, y a su normativa de desarrollo, declarándose la aplicación supletoria de la presente Ley.

V

En el ámbito de la denominada Administración institucional, la Ley culmina y hace efectivas las conclusiones alcanzadas en este ámbito por la CORA y que son reflejo de la necesidad de dar cumplimiento a lo previsto en el mencionado artículo 31.2 de la Constitución, que ordena que el gasto público realice una asignación equitativa de los recursos públicos, y que su programación y ejecución respondan a los criterios de eficiencia y economía. De forma

den. Gobernuaren ordezkariordeen eskumenei dagokienez, eta alderdi berririk nabarmenena den aldetik, ordezkariordeari esleitzen zaio bitarteko materialen erabilera koordinatzeko eskumena, eta bereziki, bere probintziako esparruan dauden administrazio-erakinen erabilera koordinatzea.

Lege-alderdian jasotzen da ordezkariordeen eta ordezkariordeen kudeaketan funtsezkotzat jotzen den organo bat: Idazkaritza Nagusia. Organo hori zerbitzu erkideetako gorabeheraz arduratuko da, eta arlo funtzionalak haren mende egongo dira. Legez ezartzen da, halaber, gobernu-ordezkaritza eta ordezkariordeen laguntza juridikoa eta finantza-kontrola Estatuaren Abokatutzak eta Estatuaren Administrazio Kontu Hartzailatza Nagusiak egingo dituztela, hurrenez hurren. Gai hori erregelamendu-araudi bidez arautzen zen lehenago.

Legeak espresuki aurreikusten du Estatuaren Administrazio Periferikoa Koordinatzeko Ministerio arteko Batzordea. Batzorde horren eskudantziak, osaera eta funtzionamendua erregelamendu bidez arautuko dira.

Estatuak atzerrian duen Administrazio Orokorri dagokionez, Estatuaren Kanpo Ekintza eta Zerbitzuari buruzko martxoaren 25eko 2/2014 Legea eta lege hori garatzeko araudirako igorpena egiten da, eta lege hau modu osagarrian aplikatu behar dela adierazten da.

V

Administrazio Instituzionala izenekoaren eremuan, Legeak burutu eta efektibo bihurtzen ditu APEBek arlo horretan ateratako ondorioak. Era berean, ondorio horiek Konstituzioaren 31.2 artikuluan aurreikusitakoa betetzeko premiaren isla dira. Izan ere, artikulua horrek agintzen du gastu publikoan baliabide publikoen esleipen zuzena egin dadila, bai eta gastua programatu eta egikaritzean efizientzia eta ekonomia printzipioak bete daitezela ere.

congruente con este mandato, el artículo 135 de la Constitución establece que todas las Administraciones Públicas adecuarán sus actuaciones al principio de estabilidad presupuestaria.

La permanente necesidad de adaptación de la Administración Institucional se aprecia con el mero análisis de la regulación jurídica de los entes que la componen. Un panorama en el que se han aprobado de forma sucesiva diferentes leyes que desde distintas perspectivas han diseñado el marco normativo de los entes auxiliares de que el Estado dispone.

En primer lugar, la regulación jurídica fundamental de los diferentes tipos de entes y organismos públicos dependientes del Estado está prevista en la Ley 6/1997, de 14 de abril, que diferencia tres tipos de entidades: Organismos Autónomos, Entidades Públicas Empresariales y Agencias Estatales, categoría que se añadió con posterioridad. Cada uno de estos organismos públicos cuenta con una normativa reguladora específica, que normalmente consta de una referencia en la ley de creación y de un desarrollo reglamentario posterior dictado al aprobar los correspondientes estatutos.

No obstante, el marco aparentemente general es cuestionado por la previsión establecida en la disposición adicional décima de la Ley, 6/1997, de 14 de abril, que excluye de su aplicación a determinados entes que cuentan con previsiones legales propias, por lo que la Ley se les aplica de forma sólo supletoria. Esta excepción pone de relieve el principal obstáculo en la clarificación normativa de estos entes, que no es otro que el desplazamiento del derecho común en beneficio de un derecho especial normalmente vinculado a una percepción propia de un sector de actividad, social o corporativo, que a través de la legislación específica logra dotarse de un marco jurídico más sensible a sus necesidades.

Agindu horrekin bat etorri, Konstituzioaren 135. artikulua ezartzen du administrazio publiko guztiek aurrekontu-egonkortasunaren printzipiora egokituko dituztela beren jarduketak.

Administrazio Instituzionala osatzen duten enteen araudi juridikoa aztertze hutsarekin ikus daiteke administrazio hori etengabe egokitu behar dela. Panorama horretan, Estatuak barnean dituen ente laguntzaileen arau-esparrua diseinatu duten zenbait lege onetsi dira bata bestearen ondoren.

Lehenengoz, Estatuaren mendeko ente eta organismo publikoen funtsezko arauketa juridikoa apirilaren 14ko 6/1997 Legean aurreikusita dago. Lege horrek hiru motatako entitateak bereizten ditu: organismo autonomoak, enpresa-entitate publikoak eta estatu-agentziak; azken kategoria hori geroago gehitu zen. Organismo publiko horietako bakoitzak araudi erregulatzailerik espezifikoak dauka. Normalean, araudi hori osatzen dute sorrera-legean egindako erreferentzia batek eta estatutuak onestean egindako erregelamendu bidezko garapen batek.

Hala ere, itxuraz orokorra den esparrua auzitan jartzen du apirilaren 14ko 6/1997 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian ezarritako aurreikuspenak. Aurreikuspen horrek Legearen aplikaziotik salbuesten ditu lege-aurreikuspen propioak dituzten ente jakin batzuk, eta hortaz, halakoei Legea modu osagarrian soilik aplikatzen zaie. Salbuespen horrek agerian jartzen du ente horiek arau aldetik argitzerakoan dagoen oztopo nagusia: hain zuzen ere, zuzenbide erkidea ordezkatzeko dela zuzenbide berezi baten mesedetan. Zuzenbide berezi hori normalean jarduera-sektore baten edo sektore sozial edo korporatibo baten pertzepzio propioari lotuta egoten da eta, horrez gain, zuzenbide horrek, legeria espezifikoaren bidez, kasuan kasuko beharrezkoetarako aproposagoa den esparru juridiko bat edukitzea lortzen du.

Con posterioridad a la Ley 6/1997, de 14 de abril, la descentralización funcional del Estado recuperó rápidamente su tendencia a la diversidad. En primer lugar, por la aprobación de la Ley 50/2002, de 26 de diciembre, de Fundaciones. En ella se diseña el régimen aplicable a las fundaciones constituidas mayoritariamente por entidades del sector público estatal, aplicando la técnica fundacional al ámbito de la gestión pública.

Desde otra perspectiva, basada en el análisis de la actividad que realizan los diferentes entes, el ordenamiento vigente ha regulado en la Ley 47/2003, de 26 de noviembre, General Presupuestaria, la totalidad del denominado «sector público estatal», que está formado por tres sectores: Primero, el Sector Público administrativo, que está constituido por la Administración General del Estado; los organismos autónomos dependientes de la Administración General del Estado; las entidades gestoras, servicios comunes y las mutuas colaboradoras con la Seguridad Social en su función pública de colaboración en la gestión de la Seguridad Social; los órganos con dotación diferenciada en los Presupuestos Generales del Estado que, careciendo de personalidad jurídica, no están integrados en la Administración General del Estado pero forman parte del sector público estatal; las entidades estatales de derecho público y los consorcios, cuando sus actos estén sujetos directa o indirectamente al poder de decisión de un órgano del Estado, su actividad principal no consista en la producción en régimen de mercado de bienes y servicios y no se financien mayoritariamente con ingresos comerciales. Segundo, el Sector Público empresarial, que está constituido por las entidades públicas empresariales, dependientes de la Administración General del Estado, o de cualesquiera otros organismos públicos vinculados o dependientes de ella; las sociedades mercantiles estatales, definidas en la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, de Patrimonio de las Administraciones Públicas; y las Entidades estatales de derecho público

Apirilaren 14ko 6/1997 Legeaz geroztik, Estatuaren deszentralizazio funtzionalak azkar batean aniztasunera jo zuen berriz ere. Lehenik, Fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/2002 Legea onetsiz. Lege horretan, gehienbat Estatuko sektore publikoko entitateek osatutako fundazioei aplikatu behar zaien araubidea diseinatu zen, kudeaketa publikoaren eremuan fundazioen teknika aplikatuz.

Ente batzuek eta besteek egiten duten jardueraren azterketan oinarritzen den beste perspektiba batetik, indarrean dagoen ordenamenduak «Estatuko sektore publikoa» osorik arautu du Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrean. Sektore horren barruan hiru sektore daude: lehenik, administrazio-sektore publikoa. Sektore hori osatzen dute Estatuaren Administrazio Orokorrak; Estatuaren Administrazio Orokorren mendeko organismo autonomoek; entitate kudeatzaileek, zerbitzu erkideek eta Gizarte Segurantzaren kudeaketan laguntzeko zeregin publikoa betetz Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateek; Estatuaren aurrekontu orokorretan zuzkidura berezia izanik Estatuaren Administrazio Orokorrean integratuta ez dauden baina Estatuko sektore publikoaren barruan dauden organo nortasun juridiko gabeek; eta zuzenbide publikoko estatu-entitateek eta partzuergoek, baldin eta haien ekintzak zuzenean edo zeharka Estatuko organo baten erabakiboterearen mende badaude, haien jardura nagusia ondasun eta zerbitzuak merkatuaren araubidean ekoiztea ez bada eta gehienbat merkataritzako diru-sarrerekin finantzatzen ez badira. Bigarren lekuan, enpresa-sektore publikoa dago. Sektore hori osatzen dute Estatuaren Administrazio Orokorren mendean dauden edo administrazio horri lotuta edo haren mendean dauden beste organismo publikoen mendeko enpresa-entitate publikoek; Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean definitutako Estatuko merkataritza-sozietateek; eta administrazio-sektore publikoaren barruan

distintas de las comprendidas en el Sector Público administrativo y los consorcios no incluidos en él. Tercero, el Sector Público fundacional, constituido por las fundaciones del sector público estatal, definidas en la Ley 50/2002, de 26 de diciembre.

El siguiente hito normativo fue la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, que regula el denominado «patrimonio empresarial de la Administración General del Estado», formado por las entidades públicas empresariales, a las que se refiere el Capítulo III del Título III de la Ley 6/1997, de 14 de abril, las entidades de Derecho público cuyos ingresos provengan, al menos en un 50 por 100, de operaciones realizadas en el mercado; y las sociedades mercantiles estatales.

La preocupación por la idoneidad de los entes públicos y la voluntad de abordar su reforma condujo a la aprobación de la Ley 28/2006, de 18 de julio, de Agencias Estatales para la Mejora de los Servicios Públicos, mediante la que se creó este nuevo tipo de ente. El objetivo prioritario de esta Ley fue establecer mecanismos de responsabilidad en la dirección y gestión de los nuevos organismos públicos, vinculando el sistema retributivo al logro de sus objetivos y reconociendo un mayor margen de discrecionalidad en la gestión presupuestaria.

La Ley autorizó la creación de 12 Agencias, si bien hasta el momento sólo se han constituido 7 de ellas, y la Agencia Española de Medicamentos y Productos Sanitarios, autorizada en otra Ley.

El objetivo de la reforma fue instaurar la Agencia como nuevo modelo de ente público, pero nació ya con una eficacia limitada. La disposición adicional quinta de la Ley autorizaba al Gobierno para transformar en Agencia los Organismos Públicos cuyos objetivos y actividades se ajustasen a su naturaleza, lo que implicaba el reconocimiento de la existencia de entidades que, por no cumplir este requisito, no precisarían transformación, y que permanecerían en su

daudenez bestelako zuzenbide publikoko estatu-entitateek eta sektore horren barruan ez dauden partzuergoek. Hirugarren lekuan, fundazio-sektore publikoa dago. Sektore hori osatzen dute abenduaren 26ko 50/2002 Legean definitzen diren Estatuko sektore publikoko fundazioek.

Araudiari dagokionez, bigarren urrats gogoangarria «Estatuaren Administrazio Orokorraren enpresa-ondarea» delakoa arautzen duen azaroaren 3ko 33/2003 Legea izan zen. Ondare hori osatzen dute apirilaren 14ko 6/1997 Legearen III. tituluko III. kapituluaz azaltzen diren enpresa-entitate publikoek, diru-sarreraren % 50 gutxienez merkatuan egindako eragiketarik eskuratzen duten zuzenbide publikoko entitateek eta Estatuko merkataritza-sozietateek.

Ente publikoen egokitasunari buruzko kezka-erantzukizun eta ente horiek erreformatzeko borondatearengatik, Zerbitzu Publikoak Hobetzeko Estatu Agentziei buruzko uztailaren 18ko 28/2006 Legea onetsi zen, eta lege horren bitartez ente mota berri hori sortu zen. Lege horren helburu nagusia organismo publiko berrien zuzendaritzan eta kudeaketan erantzukizun-mekanismoak ezartzea izan zen. Hala, ordainsari-sistema helburuen lorpenarekin lotu zen, eta aurrekontuen kudeaketan diskrezionaltasun-tarte handiagoa onartu zen.

Legeak 12 agentzia sortzea baimendu zuen, baina orain arte horietako 7 soilik eratu dira, eta Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentzia beste lege batean dago baimenduta.

Erreformaren helburua, agentzia ente publiko baten eredu berri gisa ezartzea izan zen, baina sortu zenetik efikazia urria izan zuen. Legearen bosgarren xedapen gehigarriak Gobernuari baimena ematen zion organismo publikoak agentzia bihurtzeko, baldin eta horien helburuak eta jarduerak izaera horri egokitzen bazitzaizkion. Horrek zera esan nahi zuen: onartu egiten zela bazeudela entitate batzuk betekizun hori ez betetzeagatik eraldaketarik behariko ez zutenak eta, horrenbestez,

condición de Organismos Autónomos, Entidades Públicas Empresariales o entes con estatuto especial. Y, sin embargo, la disposición adicional séptima ordenaba atribuir el estatuto a todos los organismos públicos de futura creación «con carácter general».

Por todo ello, no puede decirse que los objetivos de la Ley se hayan alcanzado, incluso después de más de seis años de vigencia, porque su desarrollo posterior ha sido muy limitado, y porque las medidas de control de gasto público han neutralizado la pretensión de dotar a las agencias de mayor autonomía financiera.

Otras normas se han referido con mayor o menor amplitud, al ámbito y categoría del sector público. Es el caso de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, que diferencia entre el «Sector Público» y las «Administraciones Públicas», introduciendo el concepto de «poderes adjudicadores». Distinción igualmente recogida en el posterior Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

La Ley 2/2011, de 4 de marzo, de Economía Sostenible, llevó a cabo una regulación propia y especial para los seis organismos reguladores existentes en esos momentos, con especial atención a garantizar su independencia respecto de los agentes del mercado. Posteriormente la Ley 3/2013, de 4 de junio, de creación de la Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia integró en esta supervisión hasta siete preexistentes. Incluso nos encontramos con que la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, para evitar dudas interpretativas, se remite a la definición del «sector público» «en el ámbito comunitario».

El proyecto de reforma administrativa puesto en marcha aborda la situación de los entes instrumentales en dos direcciones: medidas concretas de racionalización del sector público estatal, fundacional y empresarial, que se han

Administraciones Públicas, en razón de la dependencia orgánica de las Delegaciones del Gobierno, y contarán, en todo caso, con una Secretaría General, dependiente de los Delegados o, en su caso, de los Subdelegados del Gobierno, como órgano de gestión de los servicios comunes, y de la que dependerán los distintos servicios integrados en la misma, así como aquellos otros servicios y unidades que se determine en la relación de puestos de trabajo.

2. La integración de nuevos servicios territoriales o la desintegración de servicios territoriales ya integrados en las Delegaciones del Gobierno, se llevará a cabo mediante Real Decreto de Consejo de Ministros, a propuesta del Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas, en razón de la dependencia orgánica de las Delegaciones del Gobierno, y del Ministerio competente del área de actividad.

Artículo 77. Asistencia jurídica y control económico financiero de las Delegaciones y Subdelegaciones del Gobierno.

La asistencia jurídica y las funciones de intervención y control económico financiero en relación con las Delegaciones y Subdelegaciones del Gobierno se ejercerán por la Abogacía del Estado y la Intervención General de la Administración del Estado respectivamente, de acuerdo con su normativa específica.

Sección 5.ª Órganos colegiados

Artículo 78. La Comisión interministerial de coordinación de la Administración periférica del Estado.

1. La Comisión interministerial de coordinación de la Administración periférica del Estado es un órgano colegiado, adscrito al Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas.

2. La Comisión interministerial de coordinación

Ministerioak hala proposatuta –Gobernuaren ordezkartzen mendetasun organikoarengatik–, eta idazkaritza nagusi bat izango dute kasu guztietan, Gobernuaren ordezkarien mendekoa edo, hala badagokio, ordezkariordeen mendekoa, zerbitzu erkideak kudeatzeko organo gisa. Idazkaritza nagusi horren mendean egongo dira bertan integratuta dauden zerbitzuak, bai eta lanpostu-zerrendan zehazten diren zerbitzu eta unitateak ere.

2. Gobernuaren ordezkartzetan lurralde-zerbitzu berriak integratzeko edo lehendik integratuta dauden lurralde-zerbitzu berriak bereizteko, Ministro Kontseiluaren errege-dekretua emango da, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak hala proposatuta –Gobernuaren ordezkartzen mendetasun organikoarengatik–, eta jarduerarloan eskumena duen ministerioak ere hala proposatuta.

77. artikulua. Gobernuaren ordezkartzen eta ordezkariordetzen laguntza juridikoa eta kontrol ekonomiko eta finantzarioa.

Laguntza juridikoa eta kontu-hartzaitzako eta kontrol ekonomiko eta finantziario eginkizunak, Gobernuaren ordezkartzei eta ordezkariordetzei dagokienez, Estatuaren Abokatutzak eta Estatuako Administrazio Kontu Hartzaitza Nagusiak egingo dituzte, beren araudi espezifikoaren arabera.

5. atala. Kide anitzeko organoak

78. artikulua. Estatuaren Administrazio Periferikoaren Koordinazioko Ministerio arteko Batzordea.

1. Estatuaren Administrazio Periferikoa Koordinatzeko Ministerio arteko Batzordea kide anitzeko organoa da, eta Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioan adskribatuta dago.

2. Estatuaren Administrazio Periferikoaren

de la Administración periférica del Estado se encargará de coordinar la actuación de la Administración periférica del Estado con los distintos Departamentos ministeriales.

3. Mediante Real Decreto se regularán sus atribuciones, composición y funcionamiento.

Artículo 79. Los órganos colegiados de asistencia al Delegado y al Subdelegado del Gobierno.

1. En cada una de las Comunidades Autónomas pluriprovinciales existirá una Comisión territorial de asistencia al Delegado del Gobierno, con las siguientes características:

a) Estará presidida por el Delegado del Gobierno en la Comunidad Autónoma e integrada por los Subdelegados del Gobierno en las provincias comprendidas en el territorio de ésta.

b) A sus sesiones deberán asistir los titulares de los órganos y servicios territoriales, tanto integrados como no integrados, que el Delegado del Gobierno considere oportuno.

c) Esta Comisión desarrollará, en todo caso, las siguientes funciones:

1.º Coordinar las actuaciones que hayan de ejecutarse de forma homogénea en el ámbito de la Comunidad Autónoma, para asegurar el cumplimiento de los objetivos generales fijados por el Gobierno a los servicios territoriales.

2.º Homogeneizar el desarrollo de las políticas públicas en su ámbito territorial, a través del establecimiento de criterios comunes de actuación que habrán de ser compatibles con las instrucciones y objetivos de los respectivos departamentos ministeriales.

3.º Asesorar al Delegado del Gobierno en la Comunidad Autónoma en la elaboración de las propuestas de simplificación administrativa y racionalización en la utilización de los recursos.

4.º Cualesquiera otras que a juicio del Delegado del Gobierno en la Comunidad

Koordinazioko Ministerio arteko Batzordearen ardura izango da Estatuaren Administrazio Periferikoaren jarduketa ministerio-departamentu batzuekin eta besteekin koordinatzea.

3. Errege-dekretu bidez ezarriko dira haren eskudantziak, osaera eta funtzionamendua.

79. artikulua. Gobernuaren ordezkariari eta ordezkariordeari laguntzeko kide anitzeko organoak.

1. Probintzia bat baino gehiago dituen autonomia-erkidego bakoitzean, Gobernuaren ordezkariari laguntzeko lurralde-batzorde bat egongo da. Batzorde horrek honako ezaugarri hauek izango ditu:

a) Batzordeburua Gobernuak autonomia-erkidegoan duen ordezkaria izango da, eta batzordekideak Gobernuak erkidego horretako probintzietan dituen ordezkariordeak.

b) Gobernuaren ordezkariak erabakiko du Batzordearen bileretara lurraldeko organo eta zerbitzuetako zein titularrek joan beharko duten.

c) Batzordeak honako eginkizun hauek beteko ditu:

1.a Autonomia-erkidegoan modu homogeneoan egin beharreko jarduketak koordinatzea, Gobernuak lurralde-zerbitzuei ezarritako helburu orokorrak betetzen direla ziurtatzeko.

2.a Bere lurralde-eremuan politika publikoen garapena homogeneizatzea, jarduketa-irizpide komun batzuk ezarri. Irizpide horiek bateragarriak izan beharko dute ministerio-departamentu batzuen eta besteen jarraibide eta helburuekin.

3.a Gobernuak autonomia-erkidegoan duen ordezkariari aholkua ematea, Administrazioa sinplifikatzeko eta baliabideen erabilera arrazionalizatzeko proposamenak egitean.

4.a Autonomia-erkidegoan Gobernuak duen ordezkariaren iritziz lurralde-batzordeak

Autónoma resulten adecuadas para que la Comisión territorial cumpla la finalidad de apoyo y asesoramiento en el ejercicio de las competencias que esta Ley le asigna.

2. En las Comunidades Autónomas uniprovinciales existirá una Comisión de asistencia al Delegado del Gobierno, presidida por él mismo e integrada por el Secretario General y los titulares de los órganos y servicios territoriales, tanto integrados como no integrados, que el Delegado del Gobierno considere oportuno, con las funciones señaladas en el apartado anterior.

3. En cada Subdelegación del Gobierno existirá una Comisión de asistencia al Subdelegado del Gobierno presidida por él mismo e integrada por el Secretario General y los titulares de los órganos y servicios territoriales, tanto integrados como no integrados, que el Subdelegado del Gobierno considere oportuno, con las funciones señaladas en el apartado primero, referidas al ámbito provincial.

CAPÍTULO IV

De la Administración General del Estado en el exterior

Artículo 80. El Servicio Exterior del Estado.

El Servicio Exterior del Estado se rige en todo lo concerniente a su composición, organización, funciones, integración y personal por lo dispuesto en la Ley 2/2014, de 25 de marzo, de la Acción y del Servicio Exterior del Estado y en su normativa de desarrollo y, supletoriamente, por lo dispuesto en esta Ley.

laguntzako eta aholkularitzako xedea bete dezan egokiak diren beste edozein eginkizun, lege honek esleitzen dizkion eskumenak egikaritzeko esparruan.

2. Probintzia bakarreko autonomia-erkidegoetan Gobernuaren ordezkariari laguntzeko batzorde bat egongo da. Batzordeburua Gobernuaren ordezkaria izango da, eta kideak, berriz, idazkari nagusia eta Gobernuaren ordezkariak egokitzen dituen integratutako nahiz integratu gabeko lurraldeko organo eta zerbitzuen titularrak, aurreko zenbakian azaldu diren eginkizunak dituztela.

3. Gobernuaren ordezkariordetza bakoitzean Gobernuaren ordezkariordeari laguntzeko batzorde bat egongo da. Batzordeburua Gobernuaren ordezkariordea bera izango da, eta kideak, berriz, idazkari nagusia eta Gobernuaren ordezkariordeak egokitzen dituen integratutako nahiz integratu gabeko lurralde-organu eta -zerbitzuen titularrak, lehenengo zenbakian probintzia-eremuari buruz azaldu diren eginkizunak dituztela.

IV. KAPITULUA

Estatuak atzerrian duen Administrazio Orokorra

80. artikulua. Estatuaren Atzerri Zerbitzua.

Estatuaren Atzerri Zerbitzua, bere osaerari, antolaketari, eginkizunei, integrazioari eta langileei dagokienez, Estatuaren Kanpo Ekintzari eta Zerbitzuari buruzko martxoaren 25eko 2/2014 Legean eta lege hori garatzeko araudian xedatuta dagoenak eraenduko du, eta, modu osagarrian, lege honetan xedatuta dagoenak.

TÍTULO II

Organización y funcionamiento del sector público institucional

CAPÍTULO I

Del sector público institucional

Artículo 81. Principios generales de actuación.

1. Las entidades que integran el sector público institucional están sometidas en su actuación a los principios de legalidad, eficiencia, estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera así como al principio de transparencia en su gestión. En particular se sujetarán en materia de personal, incluido el laboral, a las limitaciones previstas en la normativa presupuestaria y en las previsiones anuales de los presupuestos generales.

2. Todas las Administraciones Públicas deberán establecer un sistema de supervisión continua de sus entidades dependientes, con el objeto de comprobar la subsistencia de los motivos que justificaron su creación y su sostenibilidad financiera, y que deberá incluir la formulación expresa de propuestas de mantenimiento, transformación o extinción.

3. Los organismos y entidades vinculados o dependientes de la Administración autonómica y local se registrarán por las disposiciones básicas de esta ley que les resulten de aplicación, y en particular, por lo dispuesto en los Capítulos I y IV y en los artículos 129 y 134, así como por la normativa propia de la Administración a la que se adscriban.

Artículo 82. El Inventario de Entidades del Sector Público Estatal, Autonómico y Local.

1. El Inventario de Entidades del Sector Público Estatal, Autonómico y Local, se configura como un registro público administrativo que garantiza la información

II. TITULUA

Sektore publiko instituzionalaren antolaketa eta funtzionamendua

I. KAPITULUA

Sektore publiko instituzionala

81. artikulua. Jarduketa-printzipio orokorrak.

1. Sektore publiko instituzionala osatzen duten entitateek, beren jarduketari dagokionez, printzipio hauek bete beharko dituzte: legezotasuna, efizientzia, aurrekontu-egonkortasuna, finantza-jasangarritasuna, eta kudeaketako gardentasuna. Bereziki, langileria arloan, aurrekontu-araudian ezarritako mugen eta aurrekontu orokorretako urteko aurreikuspenen arabera jardungo dute.

2. Administrazio publiko guztiek beren mendeko entitateak etengabe gainbegiratzeko sistema bat ezarri beharko dute, halako entitateak sortzea justifikatu zuten arrazoiek irauten dutela eta finantza-jasangarritasuna dutela egiaztatzeko. Sistema horren barruan, espresuki azaldu behar dira entitateak mantentzeko, eraldatzeko edo azkentzeko proposamenak.

3. Autonomia-erkidegoarekin eta toki-administrazioarekin lotuta eta haien mende dauden organismo eta entitateak aplikagarri zaizkien lege honen oinarritzko xedapenek eraenduko dituzte, eta, bereziki, I. eta IV. kapituluan eta 129. eta 134. artikuluetan eta adskribatuta dauden administrazioaren araudi propioan xedatuta dagoenak.

82. artikulua. Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Entitateen Inbentarioa.

1. Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Entitateen Inbentarioa administrazio-erregistro publiko bat da, zeinak bermatu egiten baitu informazio publikoa, baita

pública y la ordenación de todas las entidades integrantes del sector público institucional cualquiera que sea su naturaleza jurídica.

La integración y gestión de dicho Inventario y su publicación dependerá de la Intervención General de la Administración del Estado y la captación y el tratamiento de la información enviada por las Comunidades Autónomas y las Entidades locales para la formación y mantenimiento del inventario dependerá de la Secretaría General de Coordinación Autonómica y Local.

2. El Inventario de Entidades del Sector Público contendrá, al menos, información actualizada sobre la naturaleza jurídica, finalidad, fuentes de financiación, estructura de dominio, en su caso, la condición de medio propio, regímenes de contabilidad, presupuestario y de control así como la clasificación en términos de contabilidad nacional, de cada una de las entidades integrantes del sector público institucional.

3. Al menos, la creación, transformación, fusión o extinción de cualquier entidad integrante del sector público institucional, cualquiera que sea su naturaleza jurídica, será inscrita en el Inventario de Entidades del Sector Público Estatal, Autonómico y Local.

Artículo 83. Inscripción en el Inventario de Entidades del Sector Público Estatal, Autonómico y Local.

1. El titular del máximo órgano de dirección de la entidad notificará, a través de la intervención general de la Administración correspondiente, la información necesaria para la inscripción definitiva en el Inventario de Entidades del Sector Público Estatal, Autonómico y Local, en los términos previstos reglamentariamente, de los actos relativos a su creación, transformación, fusión o extinción, en el plazo de treinta días hábiles a contar desde que ocurra el acto inscribible. En la citada notificación se acompañará la documentación justificativa que determina tal circunstancia.

2. La inscripción definitiva de la creación de

sektore publiko instituzionala osatzen duten entitate guztien antolamendua ere, edozein izanik entitate horien izaera juridikoa.

Inbentario hori integratzeaz eta kudeatzeaz Estatuko Administrazioako Kontu Hartzailtza Nagusia arduratuko da, eta autonomia-erkidegoek eta toki-entitateek Inbentarioa eratzeko eta mantentzeko bidalitako informazioa atzitzeaz eta tratatzeaz Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusia arduratuko da.

2. Sektorre Publikoko Entitateen Inbentarioak informazio eguneratu hau bilduko du, gutxienez, sektore publiko instituzionalako entitate bakoitzari buruz: izaera juridikoa, xedea, finantzaketa-iturriak, jabari-egitura –hala badagokio–, bitarteko propioaren kondizioa, eta kontabilitate-, aurrekontu- eta kontrol-araubideak, eta sailkapena, kontabilitate nazionalari dagokionez.

3. Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektorre Publikoko Entitateen Inbentarioan inskribatuko da, gutxienez, sektore publiko instituzionalako edozein entitatearen sorrera, eraldaketa, bat-egitea edo azkentzea, edozein dela ere entitate horien izaera juridikoa.

83. artikulua. Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektorre Publikoko Entitateen Inbentarioan inskribatzea.

1. Entitateko zuzendaritza-organo gorenaren titularrak, dagokion administrazioaren kontu-hartzailtza nagusiaren bitartez, entitatearen sorrera, eraldaketa, bat-egite edo azkentzeari buruzko egintzak Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektorre Publikoko Entitateen Inbentarioan behin betiko inskribatzeko beharrezkoa den informazioa jakinaraziko du, hogeita hamar egun balioduneko epean, inskribatu beharreko egintza gertatzen denetik. Jakinarazpen horretan, inguruabar hori egiaztatzeko agiriak aurkeztuko dira.

2. Sektorre publiko instituzionalako edozein

cualquier entidad integrante del sector público institucional en el Inventario de Entidades del Sector Público Estatal, Autonómico y Local se realizará de conformidad con las siguientes reglas:

a) El titular del máximo órgano de dirección de la entidad, a través de la intervención general de la Administración correspondiente, notificará, electrónicamente a efectos de su inscripción, al Inventario de Entidades del Sector Público Estatal, Autonómico y Local, la norma o el acto jurídico de creación en el plazo de 30 días hábiles desde la entrada en vigor de la norma o del acto, según corresponda. A la notificación se acompañará la copia o enlace a la publicación electrónica del Boletín Oficial en el que se publicó la norma, o copia del acto jurídico de creación, así como el resto de documentación justificativa que proceda, como los Estatutos o el plan de actuación.

b) La inscripción en el Inventario de Entidades del Sector Público Estatal, Autonómico y Local se practicará dentro del plazo de 15 días hábiles siguientes a la recepción de la solicitud de inscripción.

c) Para la asignación del Número de Identificación Fiscal definitivo y de la letra identificativa que corresponda a la entidad, de acuerdo con su naturaleza jurídica, por parte de la Administración Tributaria será necesaria la aportación de la certificación de la inscripción de la entidad en el Inventario de Entidades del Sector Público Estatal, Autonómico y Local.

CAPÍTULO II

Organización y funcionamiento del sector público institucional estatal

Artículo 84. Composición y clasificación del sector público institucional estatal.

1. Integran el sector público institucional estatal las siguientes entidades:

a) Los organismos públicos vinculados o

entitate Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Entitateen Inbentarioan behin betiko inskribatzeko, arau hauek bete beharko dira:

a) Entitateko zuzendaritza-organo gorenaren titularrak, dagokion administrazioaren kontu-hartzailetza nagusiaren bitartez, sorrerako araua edo egintza juridikoa jakinaraziko dio Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Entitateen Inbentarioari, bitarteko elektronikoak erabiliz, 30 egun balioduneko epean, araua edo egintza –zer dagokion– indarrean jartzen denetik aurrera. Jakinarazpenarekin batera aurkeztuko da araua argitaratu den aldizkari ofizialaren kopia edo argitalpen elektronikorako lotura, edo sorrerako egintza juridikoaren kopia, bai eta bidezkoak diren frogagiri guztiak ere, hala nola estatutuak edo jarduketa-plana.

b) Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Entitateen Inbentarioko inskripzioa 15 egun balioduneko epean egingo da, inskribatzeko eskaera jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatuta.

c) Zerga-administrazioak izaera juridikoaren arabera entitateari dagozkion behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakia eta identifikazio-letra esleitzeko, entitatea Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Entitateen Inbentarioan inskribatu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da.

II. KAPITULUA

Estatuko sektore publiko instituzionalaren antolaketa eta funtzionamendua

84. artikulua. Estatuko sektore publiko instituzionalaren osaera eta sailkapena.

1. Estatuko sektore publiko instituzionalaren barnean honako entitate hauek daude:

a) Estatuaren Administrazio Orokorrari

dependientes de la Administración General del Estado, los cuales se clasifican en:

- 1.º Organismos autónomos.
 - 2.º Entidades Públicas Empresariales.
- b) Las autoridades administrativas independientes.
- c) Las sociedades mercantiles estatales.
- d) Los consorcios.
- e) Las fundaciones del sector público.
- f) Los fondos sin personalidad jurídica.
- g) Las universidades públicas no transferidas.

2. La Administración General del Estado o entidad integrante del sector público institucional estatal no podrá, por sí misma ni en colaboración con otras entidades públicas o privadas, crear, ni ejercer el control efectivo, directa ni indirectamente, sobre ningún otro tipo de entidad distinta de las enumeradas en este artículo, con independencia de su naturaleza y régimen jurídico.

Lo dispuesto en este apartado no será de aplicación a la participación del Estado en organismos internacionales o entidades de ámbito supranacional, ni a la participación en los organismos de normalización y acreditación nacionales.

3. Las universidades públicas no transferidas se registrarán por lo dispuesto en la Ley 47/2003, de 26 de noviembre que les sea de aplicación y lo dispuesto en esta ley en lo que no previsto en su normativa específica.

Artículo 85. Control de eficacia y supervisión continua.

1. Las entidades integrantes del sector público institucional estatal estarán sometidas al control de eficacia y supervisión continua, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 110.

Para ello, todas las entidades integrantes del

lotutako edo haren mendeko organismo publikoak. Organismo publiko horiek honela sailkatzen dira:

- 1.a Organismo autonomoak.
 - 2.a Enpresa-entitate publikoak.
- b) Administrazio-agintaritza independenteak.
- c) Estatuko merkataritza-sozietateak.
- d) Partzuergoak.
- e) Sektore publikoko fundazioak.
- f) Nortasun juridikorik gabeko funtsak.
- g) Transferitu gabeko unibertsitate publikoak.

2. Estatuaren Administrazio Orokorrek edo sektore publiko instituzionaleko entitate batek, berez nahiz beste entitate publiko edo pribatu batzuekin elkarlanean, ezingo du sortu artikulua honetan azaldu direnez bestelako entitaterik, ezta sortutako entitateak zuzenean edo zeharka kontrolatu, edozein direla ere entitate horien izaera eta araubide juridikoa.

Zenbaki honetan xedatutakoa ez zaio aplikatuko Estatuak nazioarteko organismoetan edo nazioz gaindiko entitatean izan dezakeen parte-hartzeari, ezta normalizazio eta egiaztapenerako organismo nazionaletan izan dezakeen parte-hartzeari.

3. Transferitu gabeko unibertsitate publikoak azaroaren 26ko 47/2003 Legeak eraenduko ditu, aplikagarria zaien heinean; beren araudi espezifikoa aurreikusita ez dagoen guztian, berriz, lege honetan xedatutakoak eraenduko ditu.

85. artikulua. Efikazia kontrolatzea eta etengabe gainbegiratzea.

1. Estatuko sektore publiko instituzionaleko entitateen efikazia kontrolatu beharko da eta entitateak etengabe gainbegiratu beharko dira, hargatik eragotzi gabe 110. artikuluan ezarrita dagoena.

Horretarako, Estatu sektore publiko

sector público institucional estatal contarán, en el momento de su creación, con un plan de actuación, que contendrá las líneas estratégicas en torno a las cuales se desenvolverá la actividad de la entidad, que se revisarán cada tres años, y que se completará con planes anuales que desarrollarán el de creación para el ejercicio siguiente.

2. El control de eficacia será ejercido por el Departamento al que estén adscritos, a través de las inspecciones de servicios, y tendrá por objeto evaluar el cumplimiento de los objetivos propios de la actividad específica de la entidad y la adecuada utilización de los recursos, de acuerdo con lo establecido en su plan de actuación y sus actualizaciones anuales, sin perjuicio del control que de acuerdo con la Ley 47/2003, de 26 de noviembre, se ejerza por la Intervención General de la Administración del Estado.

3. Todas las entidades integrantes del sector público institucional estatal están sujetas desde su creación hasta su extinción a la supervisión continua del Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas, a través de la Intervención General de la Administración del Estado, que vigilará la concurrencia de los requisitos previstos en esta Ley. En particular verificará, al menos, lo siguiente:

- a) La subsistencia de las circunstancias que justificaron su creación.
- b) Su sostenibilidad financiera.
- c) La concurrencia de la causa de disolución prevista en esta ley referida al incumplimiento de los fines que justificaron su creación o que su subsistencia no resulte el medio más idóneo para lograrlos.

Las actuaciones de planificación, ejecución y evaluación correspondientes a la supervisión continua se determinarán reglamentariamente.

4. Las actuaciones de control de eficacia y supervisión continua tomarán en consideración:

instituzionaleko entitate guztiek, sortzen diren unean, jarduketa-plan bat izango dute. Plan horretan bilduko dira entitatearen jardueraren ardatz izango diren ildo estrategikoak. Ildo horiek hiru urterik behin berraztertuko dira eta, jarduketa-plana osatzeko, sorrera-plana hurrengo ekitaldirako garatuko duten urteko planak egingo dira.

2. Zein departamentutan dauden adskritatuta, hark kontrolatuko du efikazia, zerbitzuen ikuskapenen bidez. Kontrol horren xedea entitatearen jarduera espezifikoaren helburuak betetzen diren eta baliabideak behar bezala erabiltzen diren ebaluatzea izango da, jarduketa-planean eta plan horren urteroko eguneraketetan ezarrita dagoenaren arabera. Dena dela, Estatuko Administrazioako Kontu Hartzailtza Nagusiak ere kontrola egin ahalko du, azaroaren 26ko 47/2003 Legearen arabera.

3. Estatuko sektore publiko instituzionaleko entitate guztiak, sortzen direnetik azkentzen diren arte, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak etengabe gainbegiratuko ditu, Estatuko Administrazioako Kontu Hartzailtza Nagusiaren bitartez. Azken horrek zainduko du lege honetan ezarritako betekizunak betetzen diren. Bereziki, honako hau egiaztatuko du gutxienez:

- a) Sortzea justifikatu zuten inguruabarrek irauten dutela.
- b) Finantza-jasangarritasuna dutela.
- c) Sorrera justifikatu zuten xedek urratzeari buruz lege honetan aurreikusten den suntsitze-zioa gertatu dela edo zio horiek gertatzen jarraitzea ez dela modurik egokiena xede horiek lortzeko.

Etengabe gainbegiratzeari dagozkion plangintza-, betearazpen- eta ebaluazio-jarduketak erregelamendu bidez zehaztuko dira.

4. Efikazia kontrolatzeko eta entitateak etengabe gainbegiratzeko jarduketetan honako hau hartuko da kontuan:

- a) La información económico financiera disponible.
- b) El suministro de información por parte de los organismos públicos y entidades sometidas al Sistema de control de eficacia y supervisión continúa.
- c) Las propuestas de las inspecciones de los servicios de los departamentos ministeriales.

Los resultados de la evaluación efectuada tanto por el Ministerio de adscripción como por el Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas se plasmarán en un informe sujeto a procedimiento contradictorio que, según las conclusiones que se hayan obtenido, podrá contener recomendaciones de mejora o una propuesta de transformación o supresión del organismo público o entidad.

Artículo 86. Medio propio y servicio técnico.

1. Las entidades integrantes del sector público institucional podrán ser consideradas medios propios y servicios técnicos de los poderes adjudicadores y del resto de entes y sociedades que no tengan la consideración de poder adjudicador cuando cumplan las condiciones y requisitos establecidos en el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

2. Tendrán la consideración de medio propio y servicio técnico cuando se acredite que, además de disponer de medios suficientes e idóneos para realizar prestaciones en el sector de actividad que se corresponda con su objeto social, de acuerdo con su norma o acuerdo de creación, se dé alguna de las circunstancias siguientes:

- a) Sea una opción más eficiente que la contratación pública y resulta sostenible y eficaz, aplicando criterios de rentabilidad económica.
- b) Resulte necesario por razones de seguridad pública o de urgencia en la

- a) Erabilgarri dagoen informazio ekonomiko eta finantzarioa.
- b) Efikazia kontrolatzeko eta entitateak etengabe gainbegiratzeko sistemaren mendean dauden organismo publiko eta entitateek informazioa ematea.
- c) Ministerio-departamentuen zerbitzuetako ikuskapenen proposamenak.

Adskripzio-ministerioak eta Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak egindako ebaluazioaren emaitzak txosten batean bilduko dira. Txosten hori kontraesan-prozeduraren mendean jarriko da, eta, ateratako ondorioen arabera, organismo publikoa edo entitatea hobetzeko gomendioak edo eraldatzeko edo suntsitzeko proposamena jaso ahal izango dira bertan.

86. artikulua. Baliabide propioa eta zerbitzu teknikoa.

1. Sektore publiko instituzionaleko entitateak botere esleitzailen eta botere esleitzailen ez diren gainerako ente eta sozietateen baliabide propio eta zerbitzu teknikotzat jo ahalko dira baldin eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen Testu Bateginean ezarritako baldintza eta betekizunak betetzen badituzte.

2. Baliabide propio eta zerbitzu teknikotzat joko dira baldin eta egiaztatzen bada sorrerako arau edo akordioaren arabera haien sozietate-xedearrekin bat datorren jarduera-sektorean prestazioak emateko baliabide nahiko eta egokiak izateaz gain inguruabar hauetako bat gertatzen dela:

- a) Kontratazio publikoa baino aukera efizienteagoa da, eta iraunkorra eta efikaza da errentagarritasun ekonomikoko irizpideak aplikatuta.
- b) Beharrezkoa da segurtasun publikoko arrazoiengatik edo baliabide propioak edo

necesidad de disponer de los bienes o servicios suministrados por el medio propio o servicio técnico.

Formará parte del control de eficacia de los medios propios y servicios técnicos la comprobación de la concurrencia de los mencionados requisitos.

En la denominación de las entidades integrantes del sector público institucional que tengan la condición de medio propio deberá figurar necesariamente la indicación «Medio Propio» o su abreviatura «M.P.».

3. A la propuesta de declaración de medio propio y servicio técnico deberá acompañarse una memoria justificativa que acredite lo dispuesto en el apartado anterior y deberá ser informada por la Intervención General de la Administración del Estado que vaya a declarar el medio propio y servicio técnico.

Artículo 87. Transformaciones de las entidades integrantes del sector público institucional estatal.

1. Cualquier organismo autónomo, entidad pública empresarial, sociedad mercantil estatal o fundación del sector público institucional estatal podrá transformarse y adoptar la naturaleza jurídica de cualquiera de las entidades citadas.

2. La transformación tendrá lugar, conservando su personalidad jurídica, por cesión e integración global, en unidad de acto, de todo el activo y el pasivo de la entidad transformada con sucesión universal de derechos y obligaciones.

La transformación no alterará las condiciones financieras de las obligaciones asumidas ni podrá ser entendida como causa de resolución de las relaciones jurídicas.

3. La transformación se llevará a cabo mediante Real Decreto, aunque suponga modificación de la Ley de creación.

4. Cuando un organismo autónomo o entidad pública empresarial se transforme en una

zerbitzu teknikoak emandako ondasun edo zerbitzuak edukitzeko presarengatik.

Baliabide propio eta zerbitzu teknikoen efikazia kontrolatzean, egiaztatu beharko da aipatutako betekizun horiek betetzen direla.

Baliabide propio diren sektore publiko instituzionaleko entitateen izendapenean nahitaez agertu beharko da «Baliabide Propioa» adierazpena edo horren laburtzapena, «B.P.».

3. Baliabide propio eta zerbitzu teknikoaren deklarazioarekin batera, justifikazio-memoria bat aurkeztu beharko da, aurreko zenbakian xedatutakoa egiaztatzeko. Memoria horri buruz, baliabide propio eta zerbitzu teknikoa deklaratu behar duen Estatuko Administrazioako Kontu Hartzailtza Nagusiak txostena egin beharko du.

87. artikulua. Estatuko sektore publiko instituzionaleko entitateen eraldaketak.

1. Estatuko sektore publiko instituzionaleko edozein organismo autonomo, enpresa-entitate publiko, Estatuko merkataritza-sozietate edo fundazio eraldatu ahalko da, eta aipatu diren entitateetako edozeinen izaera juridikoa hartu.

2. Nortasun juridikoari eutsita eraldaketa egiteko, entitate eraldatuaren aktibo eta pasiboa osorik laga eta integratuko da, egintza bakarrean, eta eskubide eta betebeharrak guztiak hartuko ditu ondorengotzaz.

Eraldaketa horrek ez ditu aldatzen bereganatutako betebeharren finantza-baldintzak, eta ezingo da ulertu harreman juridikoen suntsiarazteko arrazoi modura.

3. Errege-dekretu bitartez egingo da eraldaketa, horrek sorrera-legea aldatzea ekarri arren.

4. Organismo autonomo bat edo enpresa-entitate publiko bat enpresa-entitate publiko,

entidad pública empresarial, sociedad mercantil estatal o en una fundación del sector público, el Real Decreto mediante el que se lleve a cabo la transformación deberá ir acompañado de la siguiente documentación:

a) Una memoria que incluya:

1.º Una justificación de la transformación por no poder asumir sus funciones manteniendo su naturaleza jurídica originaria.

2.º Un análisis de eficiencia que incluirá una previsión del ahorro que generará la transformación y la acreditación de inexistencia de duplicidades con las funciones que ya desarrolle otro órgano, organismo público o entidad preexistente.

3.º Un análisis de la situación en la que quedará el personal, indicando si, en su caso, parte del mismo se integrará, bien en la Administración General del Estado o bien en la entidad pública empresarial, sociedad mercantil estatal o fundación que resulte de la transformación.

b) Un informe preceptivo de la Intervención General de la Administración del Estado en el que se valorará el cumplimiento de lo previsto en este artículo.

5. La aprobación del Real Decreto de transformación conllevará:

a) La adaptación de la organización de los medios personales, materiales y económicos que resulte necesaria por el cambio de naturaleza jurídica.

b) La posibilidad de integrar el personal en la entidad transformada o en la Administración General del Estado. En su caso, esta integración se llevará a cabo de acuerdo con los procedimientos de movilidad establecidos en la legislación de función pública o en la legislación laboral que resulte aplicable.

Los distintos tipos de personal de la entidad transformada tendrán los mismos derechos y

Estatuko merkataritza-sozietate edo sektore publikoko fundazio bihurtzen denean, eraldaketa egiteko errege-dekretuarekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Memoria bat, honako hauek jasoko dituen:

1.a Eraldaketaren justifikazioa, jatorrizko izaera juridikoari eutsita eginkizunak betetzen jarraitzeko ezintasunarengatik.

2.a Efizientziari buruzko azterketa. Azterketa horretan jasoko dira, batetik, eraldaketak sortuko duen aurrezkiaren aurreikuspena, eta, bestetik, lehendik dagoen beste organo, organismo publiko edo entitate batek egiten dituen eginkizunekin bikoiztasunik ez dagoelako egiaztapena.

3.a Langileek izango duten egoeraren azterketa; azaldu beharko da, hala badagokio, langile horien zati bat Estatuaren Administrazio Orokorrean sartuko den ala eraldaketaren ondorioz sortzen den enpresa-entitate publikoan, Estatuko merkataritza-sozietatean edo fundazioan sartuko den.

b) Estatuko Administrazio Kontu Hartzailatza Nagusiaren nahitaezko txostena, artikulua honetan aurreikusita dagoena betetzen den baloratzeko.

5. Eraldaketari buruzko errege-dekretua onesteak ondorio hauek izango ditu:

a) Izaera juridikoa aldatzearen ondorioz bitarteko pertsonal, material eta ekonomikoen antolaketa behar bezala egokitzea.

b) Langileak entitate eraldatuan edo Estatuaren Administrazio Orokorrean sartu ahal izatea. Halakorik gertatzen bada, integrazio hori funtzio publikoaren legerian edo aplikatu beharreko lan arloko legerian ezarritako mugikortasun-prozeduren arabera egingo da.

Entitate eraldatuko mota batzuetako eta besteetako langileek aplikatu behar zaien

obligaciones que les correspondan de acuerdo con la normativa que les sea de aplicación.

La adaptación, en su caso, de personal que conlleve la transformación no supondrá, por sí misma, la atribución de la condición de funcionario público al personal laboral que prestase servicios en la entidad transformada.

La integración de quienes hasta ese momento vinieran ejerciendo funciones reservadas a funcionarios públicos sin serlo podrá realizarse con la condición de «a extinguir», debiéndose valorar previamente las características de los puestos afectados y las necesidades de la entidad donde se integren.

De la ejecución de las medidas de transformación no podrá derivarse incremento alguno de la masa salarial preexistente en la entidad transformada.

CAPÍTULO III

De los organismos públicos estatales

Sección 1.ª Disposiciones generales

Artículo 88. Definición y actividades propias.

Son organismos públicos dependientes o vinculados a la Administración General del Estado, bien directamente o bien a través de otro organismo público, los creados para la realización de actividades administrativas, sean de fomento, prestación o de gestión de servicios públicos o de producción de bienes de interés público susceptibles de contraprestación; actividades de contenido económico reservadas a las Administraciones Públicas; así como la supervisión o regulación de sectores económicos, y cuyas características justifiquen su organización en régimen de descentralización funcional o de independencia.

araudiaren arabera dagozkien eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte.

Eraldaketa onduz langileak egokitu egin behar balira, horrek ez luke eragingo, besterik gabe, entitate eraldatua zerbitzuak ematen zituzten lan-kontratadun langileak funtzionario publiko bihurtzea.

Ordura arte funtzionario publiko izan gabe funtzionarioen eginkizunak egiten dituztenak eraldatutako entitatean edo Estatuaren Administrazio Orokorrean sartu ahalko dira, «azkentzeko» baldintzarekin; aurretiaz baloratu behar dira, bai ukitutako lanpostuen ezaugarriak, bai eta, zein entitatetan integratu behar diren, haren beharrezan ere.

Eraldaketa-neurriak betearazteak ez du ekarriko entitate eraldatua lehendik zegoen soldata-masa handitzerik.

III. KAPITULUA

Estatuko organismo publikoak

1. atala Xedapen orokorrak

88. artikulua. Definizioa eta jarduera propioak.

Zuzenean nahiz beste organismo publiko baten bitartez Estatuaren Administrazio Orokorrean mendea edo harekin lotuta dauden organismo publikoak dira honako jarduera hauek egiteko sortutakoak: administrazio-jarduerak, zeinak zerbitzu publikoak sustatzeko, emateko edo kudeatzeko edo kontraprestazioak jaso ahal dituzten interes publikoko ondasunak ekoiztekoak baitira; administrazio publikoei erreserbatuta dauden eduki ekonomikoko jarduerak, eta ekonomia-sektoreak gainbegiratu eta erregulatzekoak ere. Organismo publiko horien ezaugarriak erreserbatuta, justifikatuta egongo da halakoak deszentralizazio funtzionalaren edo independentziaren arabidean antolatzea.

Artículo 89. Personalidad jurídica y potestades.

1. Los organismos públicos tiene personalidad jurídica pública diferenciada, patrimonio y tesorería propios, así como autonomía de gestión, en los términos previstos en esta Ley.

2. Dentro de su esfera de competencia, les corresponden las potestades administrativas precisas para el cumplimiento de sus fines, en los términos que prevean sus estatutos, salvo la potestad expropiatoria.

Los estatutos podrán atribuir a los organismos públicos la potestad de ordenar aspectos secundarios del funcionamiento para cumplir con los fines y el servicio encomendado, en el marco y con el alcance establecido por las disposiciones que fijen el régimen jurídico básico de dicho servicio.

Los actos y resoluciones dictados por los organismos públicos en el ejercicio de potestades administrativas son susceptibles de los recursos administrativos previstos en la Ley del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Artículo 90. Estructura organizativa en el sector público estatal.

1. Los organismos públicos se estructuran en los órganos de gobierno, y ejecutivos que se determinen en su respectivo Estatuto.

Los máximos órganos de gobierno son el Presidente y el Consejo Rector. El estatuto puede, no obstante, prever otros órganos de gobierno con atribuciones distintas.

La dirección del organismo público debe establecer un modelo de control orientado a conseguir una seguridad razonable en el cumplimiento de sus objetivos.

2. Corresponde al Ministro de Hacienda y Administraciones Públicas la clasificación de las entidades, conforme a su naturaleza y a los

89. artikulua. Nortasun juridikoa eta ahalak.

1. Organismo publikoek nortasun juridiko publiko berezia dute, beren ondare eta diruzaintza propioak dituzte eta baita kudeatzeko autonomia ere, lege honetan ezarritakoaren arabera.

2. Beren eskumenen esparruan, xedeak betetzeko beharrezkoak diren administrazio-ahalak dituzte, estatutuetan aurreikusita dagoenaren arabera, desjabetzeko ahala izan ezik.

Estatutuetan, organismo publikoei funtzionamenduko bigarren mailako alderdiak antolatzeko ahala eman ahalko zaie agindutako xedeak eta zerbitzua betetzeko, zerbitzu horren oinarritzko araubide juridikoa ezartzen duten xedapenek ezarritako esparruan eta irismenarekin.

Organismo publikoek beren administrazio-ahalak erabiliz emandako egintza eta ebazpenen aurka Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako administrazio-errekurtsoak aurkeztu ahalko dira.

90. artikulua. Estatuko sektore publikoaren antolaketa-egitura.

1. Organismo publikoak gobernu-organoetan eta betearazpen-organoetan egituratzen dira, kasuan kasuko estatutuan zehazten denari jarraituz.

Gobernu-organo gorenak lehendakaria eta artezkaritza-kontseilua dira. Hala ere, estatutuan eskudantzia diferenteak dituzten beste gobernu-organo batzuk aurreikusi ahalko dira.

Organismo publikoaren zuzendaritzak kontrol-eredu bat ezarri behar du, bere helburuak betetzean arrazoizko segurtasuna lortzeko asmoarekin.

2. Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako ministroari dagokio entitateak sailkatzea, haien izaeraren arabera eta Enpresa Sektore

criterios previstos en Real Decreto 451/2012, de 5 de marzo, por el que se regula el régimen retributivo de los máximos responsables y directivos en el sector público empresarial y otras entidades. A estos efectos, las entidades serán clasificadas en tres grupos. Esta clasificación determinará el nivel en que la entidad se sitúa a efectos de:

- a) Número máximo de miembros de los órganos de gobierno.
- b) Estructura organizativa, con fijación del número mínimo y máximo de directivos, así como la cuantía máxima de la retribución total, con determinación del porcentaje máximo del complemento de puesto y variable.

Artículo 91. Creación de organismos públicos estatales.

1. La creación de los organismos públicos se efectuará por Ley.
2. La Ley de creación establecerá:
 - a) El tipo de organismo público que crea, con indicación de sus fines generales, así como el Departamento de dependencia o vinculación.
 - b) En su caso, los recursos económicos, así como las peculiaridades de su régimen de personal, de contratación, patrimonial, fiscal y cualesquiera otras que, por su naturaleza, exijan norma con rango de Ley.
3. El anteproyecto de ley de creación del organismo público que se eleve al Consejo de Ministros deberá ser acompañado de una propuesta de estatutos y de un plan inicial de actuación, junto con el informe preceptivo favorable del Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas que valorará el cumplimiento de lo previsto en este artículo.

Artículo 92. Contenido y efectos del plan de actuación.

1. El plan inicial de actuación contendrá, al menos:

Publikoko eta Beste Entitate Batzuetako Arduradun eta Zuzendari Nagusien Ordainsari Sistema arautzen duen martxoaren 5eko 451/2012 Errege Dekretuan ezarritako irizpideen arabera. Horretarako, entitateak hiru taldetan sailkatuko dira. Sailkapen horrek toki-entitatea kokatzen den maila zehaztuko du, honako helburu hauetarako:

- a) Gobernu-organoetako kideen gehieneko kopurua.
- b) Antolaketa-egitura, zuzendarien gehieneko eta gutxieneko kopurua nahiz gutzizko ordainsariaren zenbatekoa finkatuta eta lanpostu-osagarriaren eta osagarri aldakorraren gehieneko ehuneko zehaztuta.

91. artikulua. Estatuko organismo publikoak sortzea.

1. Organismo publikoak lege bidez sortuko dira.
2. Sorrera-legeak hau ezarriko du:
 - a) Sortzen den organismo publiko mota. Xede orokorrak azaldu beharko dira, bai eta erakundea zein departamenturen mendean edo zein saili lotuta dagoen.
 - b) Hala badagokio, baliabide ekonomikoak, langileriaren, kontratazioaren, ondarearen eta zerga arloko araubidearen berezitasunak, eta bere izaerarengatik lege-mailako arau bat eskatzen duten beste berezitasun guztiak ere.
3. Ministro Kontseiluari organismo publikoa sortzeko lege-aurreproiektua igorri beharko zaio. Lege-aurreproiektu horrekin batera, estatutuen proposamena eta hasierako jarduketa-plana aurkeztu beharko dira, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren aldeko nahitaezko txostenarekin. Txosten horretan, artikulua honetan aurreikusita dagoena betetzen den baloratuko da.

92. artikulua. Jarduketa-planaren edukia eta ondorioak.

1. Hasierako jarduketa-planak honako hau jasoko du, gutxienez:

a) Las razones que justifican la creación de un nuevo organismo público, por no poder asumir esas funciones otro ya existente, así como la constatación de que la creación no supone duplicidad con la actividad que desarrolle cualquier otro órgano o entidad preexistente.

b) La forma jurídica propuesta y un análisis que justifique que la elegida resulta más eficiente frente a otras alternativas de organización que se hayan descartado.

c) La fundamentación de la estructura organizativa elegida, determinando los órganos directivos y la previsión sobre los recursos humanos necesarios para su funcionamiento.

d) El anteproyecto del presupuesto correspondiente al primer ejercicio junto con un estudio económico-financiero que acredite la suficiencia de la dotación económica prevista inicialmente para el comienzo de su actividad y la sostenibilidad futura del organismo, atendiendo a las fuentes futuras de financiación de los gastos y las inversiones, así como a la incidencia que tendrá sobre los presupuestos generales del Estado.

e) Los objetivos del organismo, justificando su suficiencia o idoneidad, los indicadores para medirlos, y la programación plurianual de carácter estratégico para alcanzarlos, especificando los medios económicos y personales que dedicará, concretando en este último caso la forma de provisión de los puestos de trabajo, su procedencia, coste, retribuciones e indemnizaciones, así como el ámbito temporal en que se prevé desarrollar la actividad del organismo. Asimismo, se incluirán las consecuencias asociadas al grado de cumplimiento de los objetivos establecidos y, en particular, su vinculación con la evaluación de la gestión del personal directivo en el caso de incumplimiento. A tal efecto, el reparto del complemento de productividad o concepto equivalente se realizará teniendo en cuenta el grado de cumplimiento de los objetivos

a) Beste organismo publiko bat sortzea justifikatzen duten arrazoiak, haren eginkizunak lehendik dagoen beste erakunde batek bete ezin dituela azalduta. Halaber, egiaztatu beharko da erakunde hori sortuta ez dela lehendik dagoen beste organo edo entitate baten jarduera bikoiztuko.

b) Zein forma juridiko proposatzen den eta, baztertu diren beste antolaketa-alternatiba batzuekin alderatuta, aukeratu den forma juridikoa efizienteagoa dela justifikatzen duen azterlana.

c) Aukeratu den antolaketa-egituraren oinarriak. Zuzendaritza-organoak zehaztuko dira, eta funtzionamendurako beharrezkoak diren giza baliabideen aurreikuspena egingo da.

d) Lehenengo ekitaldirako aurrekontuaren aurreproiektua. Horrekin batera, azterlan ekonomiko eta finantzarioa agertuko da, zeinak egiaztatuko baitu hasieran jarduera egiten hasteko eta etorkizunean organismoa iraunkorra izateko zuzkidura ekonomikoa nahikoa dela, kontuan hartuta gastuen eta inbertsioen finantzaketarako etorkizuneko iturriak nahiz horrek guztiak Estatuaren Aurrekontu Orokorretan izango duen eragina.

e) Organismoaren helburuak –nahikoak eta egokiak direla justifikatuko da–, helburu horiek neurtzeko adierazleak, eta helburuok lortzeko urte anitzeko programazio estrategikoa. Horretarako, zer bitarteko ekonomiko erabiliko diren eta zer langile ere adierazi beharko da, eta, langileei dagokienez, zehaztu egin beharko da lanpostuak nola beteko diren, langileak nondik ekarriko diren, kostuak zenbatekoak diren, zein diren ordainsariak eta kalte-ordainak, eta organismoaren jarduera zer denbora-esparrutan garatzea aurreikusten den. Era berean, helburuen betetze-mailari lotutako ondorioak ere adierazi beharko dira, eta, bereziki, helburuak bete ezean zuzendaritza-kideen kudeaketak zein ebaluazio izango duen. Horretarako, produktibitate-osagarria edo haren kontzeptu baliokidea banatzeko, kontuan hartuko da sorrera-planean eta urteko planetan

establecidos en el plan de creación y en los anuales.

2. Los organismos públicos deberán acomodar su actuación a lo previsto en su plan inicial de actuación. Éste se actualizará anualmente mediante la elaboración del correspondiente plan que permita desarrollar para el ejercicio siguiente las previsiones del plan de creación. El plan anual de actuación deberá ser aprobado en el último trimestre del año natural por el departamento del que dependa o al que esté vinculado el organismo y deberá guardar coherencia con el Programa de actuación plurianual previsto en la normativa presupuestaria. El Plan de actuación incorporará, cada tres años, una revisión de la programación estratégica del organismo.

La falta de aprobación del plan anual de actuación dentro del plazo fijado por causa imputable al organismo, y hasta tanto se subsane la omisión, llevará aparejada la paralización de las transferencias que deban realizarse a favor del organismo con cargo a los Presupuestos Generales del Estado, salvo que el Consejo de Ministros adopte otra decisión.

1. Las autoridades administrativas independientes se registrarán por su Ley de creación, sus estatutos y la legislación especial de los sectores económicos sometidos a su supervisión y, supletoriamente y en cuanto sea compatible con su naturaleza y autonomía, por lo dispuesto en esta Ley, en particular lo dispuesto para organismos autónomos, la Ley del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 47/2003, de 26 de noviembre, el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, así como el resto de las normas de derecho administrativo general y especial que le sea de aplicación. En defecto de norma administrativa, se aplicará el derecho común.

2. Las autoridades administrativas independientes estarán sujetas al principio de sostenibilidad financiera de acuerdo con lo previsto en la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril.

CAPÍTULO V

De las sociedades mercantiles estatales

Artículo 111. Definición.

1. Se entiende por sociedad mercantil estatal aquella sociedad mercantil sobre la que se ejerce control estatal:

a) Bien porque la participación directa, en su capital social de la Administración General del Estado o alguna de las entidades que, conforme a lo dispuesto en el artículo 84, integran el sector público institucional estatal, incluidas las sociedades mercantiles estatales,

batek administrazio-agintaritza independentearen izaera juridikoa duenean, bere izendapenean «administrazio-agintaritza independentea» abisua edo «A.A.I.» laburdura agertu beharko da.

110. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Administrazio-agintaritza independenteek hauek izango dituzte arau: beren sorrera-legea, beren estatutuak eta gainbegiratzen dituzten sektore ekonomikoen legeria berezia, eta, modu osagarrian eta beren izaera eta autonomiarekin bateragarria den guztian, lege honetan xedatuta dagoena, organismo autonomoentzako bereziki, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea, azaroaren 26ko 47/2003 Legea, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 3ko 33/2003 Legea eta aplikatu behar zaizkien administrazio-zuzenbide orokor eta bereziko gainerako arauak. Administrazio-araurik egon ezean, zuzenbide erkidea aplikatuko da.

2. Administrazio-agintaritza independenteak finantza-jasangarritasunaren printzipioaren mendean egongo dira, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusita dagoenaren arabera.

V. KAPITULUA

Estatuko merkataritza-sozietateak

111. artikulua. Definizioa.

1. Estatuko merkataritza-sozietatetzat hartzen da estatu-kontrola duen merkataritza-sozietatea:

a) Bai haren kapital sozialean % 50etik gorako zuzeneko partaidetza dutelako Estatuaren Administrazio Orokorrak edo 84. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera Estatuko sektore publiko instituzionala osatzen duten entitateetako batek, Estatuko

sea superior al 50 por 100. Para la determinación de este porcentaje, se sumarán las participaciones correspondientes a la Administración General del Estado y a todas las entidades integradas en el sector público institucional estatal, en el caso de que en el capital social participen varias de ellas.

b) Bien porque la sociedad mercantil se encuentre en el supuesto previsto en el artículo 4 de la Ley 24/1988, de 28 de julio, del Mercado de Valores respecto de la Administración General del Estado o de sus organismos públicos vinculados o dependientes.

2. En la denominación de las sociedades mercantiles que tengan la condición de estatales deberá figurar necesariamente la indicación «sociedad mercantil estatal» o su abreviatura «S.M.E.».

Artículo 112. Principios rectores.

La Administración General del Estado y las entidades integrantes del sector público institucional, en cuanto titulares del capital social de las sociedades mercantiles estatales, perseguirán la eficiencia, transparencia y buen gobierno en la gestión de dichas sociedades mercantiles, para lo cual promoverán las buenas prácticas y códigos de conducta adecuados a la naturaleza de cada entidad. Todo ello sin perjuicio de la supervisión general que ejercerá el accionista sobre el funcionamiento de la sociedad mercantil estatal, conforme prevé la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas.

Artículo 113. Régimen jurídico.

Las sociedades mercantiles estatales se registrarán por lo previsto en esta Ley, por lo previsto en la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, y por el ordenamiento jurídico privado, salvo en las materias en que le sea de aplicación la normativa presupuestaria, contable, de personal, de control económico-financiero y de

merkataritza-sozietateak barnean direla. Ehuneko hori zehazteko, hauek batuko dira: Estatuaren Administrazio Orokorrari dagokion partaidetza eta Estatuko sektore publiko instituzionala osatzen duten entitate guztiei dagozkien partaidetzak, baldin eta kapital sozialean haietariko batzuek parte hartzen badute.

b) Bai merkataritza-sozietatea dagoelako Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 4. artikuluan aurreikusitako kasuan, Estatuaren Administrazio Orokorrari edo hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoei dagokienez.

2. Izaera estatala duten merkataritza-sozietateen izendapenean nahitaez agertu beharko da «Estatuko merkataritza-sozietatea» abisua, edota horren laburdura, «E.M.S.».

112. artikulua. Printzipio gidariak.

Estatuaren Administrazio Orokorrak eta sektore publiko instituzionala osatzen duten entitateek, Estatuko merkataritza-sozietateen kapital sozialaren titular diren aldetik, xedetzat hartuko dute efizientzia, gardentasuna eta gobernamentu ona lortzea merkataritza-sozietate horien kudeaketan; horretarako, entitate bakoitzaren izaerari egokitzen zaizkion jardunbide onak eta jokaera-kodeak sustatuko dituzte. Hori guztia, deusetan galarazi gabe akziodunak Estatuko merkataritza-sozietatearen funtzionamenduari egingo dion gainbegiratze orokorra, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legeak aurreikusten duenez.

113. artikulua. Araubide juridikoa.

Estatuko merkataritza-sozietateek arau izango dituzte lege honetan xedatuta dagoena, azaroaren 3ko 33/2003 Legean xedatuta dagoena eta ordenamendu juridiko pribatua, salbu eta aurrekontuari, kontabilitateari, langileei, finantza-eta ekonomia-kontrolari eta kontratazioari buruzko araudia aplikatzeko

contratación. En ningún caso podrán disponer de facultades que impliquen el ejercicio de autoridad pública, sin perjuicio de que excepcionalmente la ley pueda atribuirle el ejercicio de potestades administrativas.

Artículo 114. Creación y extinción.

1. La creación de una sociedad mercantil estatal o la adquisición de este carácter de forma sobrevenida será autorizada mediante acuerdo del Consejo de Ministros que deberá ser acompañado de una propuesta de estatutos y de un plan de actuación que contendrá, al menos:

a) Las razones que justifican la creación de la sociedad por no poder asumir esas funciones otra entidad ya existente, así como la inexistencia de duplicidades. A estos efectos, deberá dejarse constancia del análisis realizado sobre la existencia de órganos o entidades que desarrollan actividades análogas sobre el mismo territorio y población y las razones por las que la creación de la nueva sociedad no entraña duplicidad con entidades existentes.

b) Un análisis que justifique que la forma jurídica propuesta resulta más eficiente frente a la creación de un organismo público u otras alternativas de organización que se hayan descartado.

c) Los objetivos anuales y los indicadores para medirlos.

Al acuerdo de creación de la sociedad mercantil estatal se acompañará un informe preceptivo favorable del Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas o la Intervención General de la Administración del Estado, según se determine reglamentariamente, que valorará el cumplimiento de lo previsto en este artículo.

El Programa de Actuación Plurianual que conforme a la Ley 47/2003, de 26 de noviembre, deben elaborar las sociedades cada año incluirá un plan de actuación anual que servirá de base para el control de eficacia de la sociedad. La

zaien gaitan. Ezingo dute inola ere eduki agintaritza publikoa baliatzea dakarren ahalmenik, hargatik eragotzi gabe legeak salbuespenez administrazio-ahalak baliatzeko aukera ematea.

114. artikulua. Sortzea eta azkentzea.

1. Estatuko merkataritza-sozietate bat sortzeko edo sozietate batek izaera hori gerora hartzeko, Ministro Kontseiluak eman beharko du baimena akordio baten bidez, zeinarekin batera joango baitira estatutuen proposamena eta jarduketa-plana, gutxienez honako hauek jasoko dituen:

a) Zer arrazoik justifikatzen duen sozietatea sortzea, dagoeneko existitzen den beste erakunde batek eginkizun horiek ezin dituelako bereganatu, bai eta bikoiztasunik ez dagoelakoa ere. Horretarako, jasota utzi beharko da azterketa egin dela lurralde eta biztanleria berberen gainean antzeko jarduerak egiten dituzten organo edo entitateen existentziari buruz, eta sozietate berria sortzeko zergatik ez duen bikoiztasunik sortzen lehendik dauden entitateekin.

b) Azterlan bat, hau justifikatzen duena: proposatzen den forma juridikoa efizienteagoa dela organismo publiko bat sortzea edo antolaketarako baztertu diren aukerako beste forma batzuk baino.

c) Urteko helburuak eta horiek neurtzeko adierazleak.

Estatuko merkataritza-sozietatea sortzeko akordioari aldeko txosten nahitaezko bat gehituko zaio, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak edo Estatuko Administrazioako Kontu Hartzaitza Nagusiak egina (erregelamenduz zehazten dena). Txosten horretan baloratuko da artikulua honetan aurreikusita dagoena betetzen den.

Azaroaren 26ko 47/2003 Legearen arabera sozietateek urtero egin behar duten urte anitzeko jarduketa-programaren barruan, urteko jarduketa-plan bat sartuko da, zeina sozietatearen efikazia kontrolatzeko oinarri gisa

falta de aprobación del plan de actuación dentro del plazo anual fijado, por causa imputable a la sociedad y hasta tanto se subsane la omisión, llevará aparejada la paralización de las aportaciones que deban realizarse a favor de la sociedad con cargo a los presupuestos generales del Estado.

2. La liquidación de una sociedad mercantil estatal recaerá en un órgano de la Administración General del Estado o en una entidad integrante del sector público institucional estatal.

La responsabilidad que le corresponda al empleado público como miembro de la entidad u órgano liquidador será directamente asumida por la entidad o la Administración General del Estado que lo designó, quien podrá exigir de oficio al empleado público la responsabilidad que, en su caso, corresponda cuando concurra dolo, culpa o negligencia grave conforme a lo previsto en las leyes administrativas en materia de responsabilidad patrimonial.

Artículo 115. Régimen de responsabilidad aplicable a los miembros de los consejos de administración de las sociedades mercantiles estatales designados por la Administración General del Estado.

1. La responsabilidad que le corresponda al empleado público como miembro del consejo de administración será directamente asumida por la Administración General del Estado que lo designó.

2. La Administración General del Estado podrá exigir de oficio al empleado público que designó como miembro del consejo de administración la responsabilidad en que hubiera incurrido por los daños y perjuicios causados en sus bienes o derechos cuando hubiera concurrido dolo, o culpa o negligencia graves, conforme a lo previsto en las leyes administrativas en materia de responsabilidad patrimonial.

erabiliko baita. Jarduketa-plana ez bada ezarritako urtebeteko epean onartzen sozietateari egotz lekiokkeen arrazoi batengatik, geldiarazi egingo dira sozietatearen alde Estatuaren aurrekontu orokorren kargura egin behar diren ekarpenak, ez-egite hori zuzentzen den arte geldiarazi ere.

2. Estatuaren Administrazio Orokorreko organo bati edo Estatuko sektore publiko instituzionaleko entitate bati egokituko zaio Estatuko merkataritza-sozietatearen likidazioa.

Enplegatu publikoari entitate edo organo likidatzailearen kide gisa dagokion erantzukizuna zuzenean bereganatuko du kide hura izendatu zuenak —entitate edo Estatuaren Administrazio Orokor—, zeinak ofizioz eskatu ahal izango baitio erantzukizuna enplegatu publikoari, dolo, erru edo zabarkeria astuniki izan bada, administrazio-legeetan ondare-erantzukizunari buruz aurreikusita dagoenaren arabera.

115. artikulua. Zer erantzukizun-araubide aplikatzen zaien Estatuko merkataritza-sozietateetako administrazio-kontseiluetako kide Estatuaren Administrazio Orokorren izendatuei.

1. Enplegatu publikoari administrazio-kontseiluko kide gisa dagokion erantzukizuna zuzenean bereganatuko du hura izendatu zuen Estatuaren Administrazio Orokorren.

2. Estatuaren Administrazio Orokorren ofizioz eskatu ahalko dio administrazio-kontseiluko kide izendatu zuen enplegatu publikoari erantzun dezala administrazioaren ondasun eta eskubideei eragindako kalteengatik, baldin eta dolo, erru edo zabarkeria astuniki izan bada, administrazio-legeetan ondare-erantzukizunari buruz aurreikusita dagoenaren arabera.

Artículo 116. Tutela.

1. Al autorizar la constitución de una sociedad mercantil estatal con forma de sociedad anónima, de acuerdo con lo previsto en el artículo 166.2 de la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, el Consejo de Ministros podrá atribuir a un Ministerio, cuyas competencias guarden una relación específica con el objeto social de la sociedad, la tutela funcional de la misma.

2. En ausencia de esta atribución expresa corresponderá íntegramente al Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas el ejercicio de las facultades que esta Ley y la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, otorgan para la supervisión de la actividad de la sociedad.

3. El Ministerio de tutela ejercerá el control de eficacia e instruirá a la sociedad respecto a las líneas de actuación estratégica y establecerá las prioridades en la ejecución de las mismas, y propondrá su incorporación a los Presupuestos de Explotación y Capital y Programas de Actuación Plurianual, previa conformidad, en cuanto a sus aspectos financieros, de la Dirección General del Patrimonio del Estado si se trata de sociedades cuyo capital corresponda íntegramente a la Administración General del Estado, o del organismo público que sea titular de su capital.

4. En casos excepcionales, debidamente justificados, el titular del departamento al que corresponda su tutela podrá dar instrucciones a las sociedades, para que realicen determinadas actividades, cuando resulte de interés público su ejecución.

5. Cuando las instrucciones que imparta el Ministerio de tutela impliquen una variación de los Presupuestos de Explotación y Capital de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 47/2003, de 26 de noviembre, el órgano de administración no podrá iniciar la cumplimentación de la instrucción sin contar con la autorización del órgano competente para efectuar la modificación correspondiente.

6. En este caso, los administradores de las

116. artikulua. Tutoretza.

1. Sozietate anonimo baten forma duen Estatuko merkataritza-sozietate bat eratzeko baimena ematean, azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 166.2 artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera, Ministro Kontseiluak ministerio bati esleitu ahalko dio sozietate horren tutoretza funtzionala, ministerio horren eskumenek harreman espezifikoa badute sozietatearen xedearekin.

2. Eskumen hori espresuki esleitzen ez bada, oso-osorik Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak baliatu beharko ditu lege honek eta azaroaren 3ko 33/2003 Legeak sozietatearen jardura gainbegiratzeko ematen dituzten ahalak.

3. Tutoretza duen ministerioak efikazia kontrolatuko du, eta sozietateari jarraibideak emango dizkio jarduketa estrategikoko ildoei buruz; halaber, ildo horiek betearazteko lehentasunak ezarriko ditu, eta halakoak ustiapen- eta kapital-aurrekontuetan eta urte anitzeko jarduketa-programetan sartzea proposatuko du, baldin eta ados badago, finantza-alderdiei dagokienez, Estatuaren Ondarearen Zuzendaritza Nagusia (sozietateen kapitala osorik Estatuaren Administrazio Orokorrena bada) edo kapitalaren titular den organismo publikoa.

4. Behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan, tutoretza dagokion departamentuaren titularrak sozietateei jarraibideak eman ahalko dizkie jardura jakin batzuk egin ditzaten, halakoak egitea interes publikokoa bada.

5. Tutoretza duen ministerioak emandako jarraibideengatik ustiapen- eta kapital-aurrekontuak aldatzen badira azaroaren 26ko 47/2003 Legean xedatuta dagoenaren arabera, administrazio-organoa ezin izango da jarraibidea betetzen hasi, dagokion aldaketa egiteko eskumena duen organoaren baimenik ez badu.

6. Kasu horretan, jarraibide horiek eman

sociedades a las que se hayan impartido estas instrucciones actuarán diligentemente para su ejecución, y quedarán exonerados de la responsabilidad prevista en el artículo 236 del Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Sociedades de Capital, si del cumplimiento de dichas instrucciones se derivaren consecuencias lesivas.

Artículo 117. Régimen presupuestario, de contabilidad, control económico-financiero y de personal.

1. Las sociedades mercantiles estatales elaborarán anualmente un presupuesto de explotación y capital y un plan de actuación que forma parte del Programa Plurianual, que se integrarán con el Presupuesto General del Estado. El Programa contendrá la revisión trienal del plan de creación a que se refiere el artículo 85.

2. Las sociedades mercantiles estatales formularán y rendirán sus cuentas de acuerdo con los principios y normas de contabilidad recogidos en el Código de Comercio y el Plan General de Contabilidad y disposiciones que lo desarrollan.

3. Sin perjuicio de las competencias atribuidas al Tribunal de Cuentas, la gestión económico financiera de las sociedades mercantiles estatales estará sometida al control de la Intervención General de la Administración del Estado.

4. El personal de las sociedades mercantiles estatales, incluido el que tenga condición de directivo, se regirá por el Derecho laboral, así como por las normas que le sean de aplicación en función de su adscripción al sector público estatal, incluyendo siempre entre las mismas la normativa presupuestaria, especialmente lo que se establezca en las Leyes de Presupuestos Generales del Estado.

zaizkien sozietateen administratzaileek arduraz jardungo dute jarraibide horiek betearazteko, eta jarraibideak betetzearen ondorioak kaltegarriak badira, salbuetsita geratuko dira Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 236. artikuluan aurreikusitako erantzukizunetik.

117. artikulua. Aurrekontu, kontabilitate, kontrol ekonomiko eta finantzario eta langileriaren alorretako araubideak.

1. Estatuko merkataritza-sozietateek urtero egingo dute ustiapen- eta kapital-aurrekontu bat, baita urte anitzeko programaren barruan dagoen jarduketa-plan bat ere. Aurrekontua eta plana Estatuaren Aurrekontu Orokorrean integratuko dira. Programan jasoko da sorrera-planaren hiru urtean behingo berrikuspena, 85. artikuluan azaltzen dena.

2. Estatuko merkataritza-sozietateek beren kontuak formulatu eta emango dituzte Merkataritza Kodean eta Kontabilitate Plan Orokorrean nahiz horiek garatzeko xedapenetan jasota dauden kontabilitate-arloko printzipio eta arauen arabera.

3. Kontuen Auzitegiari esleitutako eskumenak deusetan galarazi gabe, Estatuko merkataritza-sozietateen kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa Estatuko Administrazioako Kontu Hartzaitza Nagusiaren kontrolaren mende egongo da.

4. Estatuko merkataritza-sozietateetako langileek, zuzendariak barnean direla, hauek izango dituzte arau: lan-zuzenbidea eta Estatuko sektore publikoari adskribatuta egoteagatik aplikatu behar zaizkien arauak, eta azken horien barruan sartuko dira beti aurrekontu-araudia, eta, bereziki, Estatuaren aurrekontu orokorren legeetan ezarrita dagoena.

CAPÍTULO VI

De los consorcios

Artículo 118. Definición y actividades propias.

1. Los consorcios son entidades de derecho público, con personalidad jurídica propia y diferenciada, creadas por varias Administraciones Públicas o entidades integrantes del sector público institucional, entre sí o con participación de entidades privadas, para el desarrollo de actividades de interés común a todas ellas dentro del ámbito de sus competencias.
2. Los consorcios podrán realizar actividades de fomento, prestacionales o de gestión común de servicios públicos y cuantas otras estén previstas en las leyes.
3. Los consorcios podrán utilizarse para la gestión de los servicios públicos, en el marco de los convenios de cooperación transfronteriza en que participen las Administraciones españolas, y de acuerdo con las previsiones de los convenios internacionales ratificados por España en la materia.
4. En la denominación de los consorcios deberá figurar necesariamente la indicación «consorcio» o su abreviatura «C».

Artículo 119. Régimen jurídico.

1. Los consorcios se regirán por lo establecido en esta Ley, en la normativa autonómica de desarrollo y sus estatutos.
2. En lo no previsto en esta Ley, en la normativa autonómica aplicable, ni en sus Estatutos sobre el régimen del derecho de separación, disolución, liquidación y extinción, se estará a lo previsto en el Código Civil sobre la sociedad civil, salvo el régimen de liquidación, que se someterá a lo dispuesto en el artículo 97, y en su defecto, el Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio.

VI. KAPITULUA

Partzuergoak

118. artikulua. Definizioa eta jarduera propioak.

1. Partzuergoak zuzenbide publikoko entitateak dira eta nortasun juridiko propio eta bereizia dute. Administrazio publiko batzuek edo sektore publiko instituzionaleko entitate batzuek sortzen dituzte beren artean edo entitate pribatuen parte-hartzearekin, guztien interes komuneko jarduerak egiteko beren eskumenen eremuan.
2. Partzuergoek sustapen jarduerak, prestazioak ematekoak edo zerbitzu publikoak elkarrekin kudeatzeko jarduerak egin ahalko dituzte, bai eta legetan aurreikusita dauden beste guztiak ere
3. Zerbitzu publikoak kudeatzeko erabil daitezke partzuergoak, Espainiako administrazioek parte hartzen duten mugaz gaindiko lankidetzeta-hitzarmenen barruan, eta Espainiak gaiaren inguruan berretsitako nazioarteko hitzarmenetako aurreikuspenekin bat etorrita.
4. Partzuergoen izendapenean nahitaez agertu behar da «partzuergoa» abisua, edota horren laburdura, «P».

119. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Partzuergoek arau izango dute lege honetan, garapeneko arau autonomikoetan eta beren estatutuetan ezarrita dagoena.
2. Lege honetan, aplikatu beharreko arau autonomikoetan eta estatutuetan partzuergoa uzteko, desegiteko, likidatzeko eta azkentzeko eskubidearen araubideari buruz aurreikusita ez dagoen guztian, Kode Zibilean sozietate zibilari buruz aurreikusita dagoena bete beharko da, salbu eta likidazio-araubidea, lege honen 97. artikuluan xedatuta dagoena aplikatuko baitzaio, eta, bestela, uztailaren 2ko 1/2010

3. Las normas establecidas en la Ley 7/1985, de 2 de abril, y en la Ley 27/2013, de 21 de diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local sobre los Consorcios locales tendrán carácter supletorio respecto a lo dispuesto en esta Ley.

Artículo 120. Régimen de adscripción.

1. Los estatutos de cada consorcio determinarán la Administración Pública a la que estará adscrito de conformidad con lo previsto en este artículo.

2. De acuerdo con los siguientes criterios, ordenados por prioridad en su aplicación y referidos a la situación en el primer día del ejercicio presupuestario, el consorcio quedará adscrito, en cada ejercicio presupuestario y por todo este periodo, a la Administración Pública que:

- a) Disponga de la mayoría de votos en los órganos de gobierno.
- b) Tenga facultades para nombrar o destituir a la mayoría de los miembros de los órganos ejecutivos.
- c) Tenga facultades para nombrar o destituir a la mayoría de los miembros del personal directivo.
- d) Disponga de un mayor control sobre la actividad del consorcio debido a una normativa especial.
- e) Tenga facultades para nombrar o destituir a la mayoría de los miembros del órgano de gobierno.
- f) Financie en más de un cincuenta por ciento, en su defecto, en mayor medida la actividad desarrollada por el consorcio, teniendo en cuenta tanto la aportación del fondo patrimonial como la financiación concedida cada año.
- g) Ostente el mayor porcentaje de participación en el fondo patrimonial.
- h) Tenga mayor número de habitantes o extensión territorial dependiendo de si los fines definidos en el estatuto están orientados a la

Legegintzako Errege Dekretua.

3. Apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legean tokiko partzuergoei buruz ezarrita dauden arauak izaera osagarria izango dute lege honetan xedatuta dagoenarekiko.

120. artikulua. Adskripzio-araubidea.

1. Partzuergo bakoitzeko estatutuek zehaztuko dute zer administrazio publikori adskribatuko zaion, artikulua honetan aurreikusitakoaren arabera.

2. Behean agertzen diren irizpideekin bat etorrita, aplikazio-lehentasunaren arabera baitaude ordenatuta eta aurrekontu-ekitaldiaren lehen eguneko egoerari baitagozkio, partzuergoa administrazio publiko honi adskribatuko zaio, aurrekontu-ekitaldi bakoitzean eta epealdi horretarako:

- a) Gobernu-organoean botoen gehiengoa duenari.
- b) Organo betearazleetako kideen gehiengoa izendatzeko edo kargutik kentzeko ahalmenak dituenari.
- c) Zuzendaritza-kideen gehiengoa izendatzeko edo kargutik kentzeko ahalmenak dituenari.
- d) Araudi berezi bati esker, partzuergoaren jardueraren gainean kontrol gehien duenari.
- e) Gobernu-organoko kideen gehiengoa izendatzeko edo kargutik kentzeko ahalmenak dituenari.
- f) Partzuergoak garatutako jardueraren ehuneko berrogeita hamarra baino gehiago, edo, bestela, zati handiena finantzatzen duenari, kontuan hartuta ondare-funtsaren ekarpena nahiz urtero egindako finantzaketa.
- g) Ondare-funtsean partaidetza-ehuneko handiena duenari.
- h) Biztanle gehien edo lurralde-hedapen handiena duenari, kontuan hartuta estatutuan definitutako helburuak pertsonen zerbitzua

prestación de servicios a las personas, o al desarrollo de actuaciones sobre el territorio.

3. En el supuesto de que participen en el consorcio entidades privadas, el consorcio no tendrá ánimo de lucro y estará adscrito a la Administración Pública que resulte de acuerdo con los criterios establecidos en el apartado anterior.

4. Cualquier cambio de adscripción a una Administración Pública, cualquiera que fuere su causa, conllevará la modificación de los estatutos del consorcio en un plazo no superior a seis meses, contados desde el inicio del ejercicio presupuestario siguiente a aquel en se produjo el cambio de adscripción.

Artículo 121. Régimen de personal.

El personal al servicio de los consorcios podrá ser funcionario o laboral y habrá de proceder exclusivamente de las Administraciones participantes. Su régimen jurídico será el de la Administración Pública de adscripción y sus retribuciones en ningún caso podrán superar las establecidas para puestos de trabajo equivalentes en aquélla.

Excepcionalmente, cuando no resulte posible contar con personal procedente de las Administraciones participantes en el consorcio en atención a la singularidad de las funciones a desempeñar, el Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas, u órgano competente de la Administración a la que se adscriba el consorcio, podrá autorizar la contratación directa de personal por parte del consorcio para el ejercicio de dichas funciones.

Artículo 122. Régimen presupuestario, de contabilidad, control económico-financiero y patrimonial.

1. Los consorcios estarán sujetos al régimen de presupuestación, contabilidad y control de la Administración Pública a la que estén adscritos, sin perjuicio de su sujeción a lo previsto en la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril.

ematera edo lurraldearen gaineko jarduketak garatzera bideraturik dauden.

3. Partzuergoan entitate pribatuek parte hartzen badute, partzuergoak ez du irabazi-asmorik izango, eta aurreko zenbakian zehaztutako irizpideen arabera dagokion administrazio publikoari adskribatuko zaio.

4. Administrazio publiko batekiko adskripzioan aldaketarik izanez gero, arrazoia edozein dela ere, aldatu egin beharko dira partzuergoaren estatutuak, gehienez sei hilabeteko epean, adskripzioa aldatu zeneko aurrekontu-ekitaldiaren hurrengo ekitaldia hasten denetik aurrera.

121. artikulua. Langileen araubidea.

Partzuergoko langileak funtzionarioak edo lan-kontratadun langileak izango dira, eta parte hartzen duten administrazioetatik baino ez dira etorriko. Adskribatuta dauden administrazio publikoaren araubide juridikoa izango dute, eta, ordainsariei dagokienez, inoiz ez dituzte gaindituko hango lanpostu baliokideentzat ezarritakoak.

Salbuespenez, bete beharreko eginkizunen berezitasunagatik ezinezkoa bada partzuergoan parte hartzen duten administrazioetako langileak edukitzea, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak edo partzuergoa adskribatuta dagoen administrazioaren organo eskudunak baimena eman ahalko dio partzuergoari zuzenean kontrata ditzan langileak, aipatutako eginkizun horietan aritu daitezten.

122. artikulua. Aurrekontu, kontabilitate, kontrol ekonomiko eta finantzario eta ondarearen alorretako araubideak.

1. Zein administrazio publikori dauden adskribatuta, hari dagokion aurrekontu-, kontabilitate- eta kontrol-araubidearen mende egongo dira partzuergoak, hargatik eragotzi gabe apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitakoari lotzea.

2. A efectos de determinar la financiación por parte de las Administraciones consorciadas, se tendrán en cuenta tanto los compromisos estatutarios o convencionales existentes como la financiación real, mediante el análisis de los desembolsos efectivos de todas las aportaciones realizadas.

3. En todo caso, se llevará a cabo una auditoría de las cuentas anuales que será responsabilidad del órgano de control de la Administración a la que se haya adscrito el consorcio.

4. Los consorcios deberán formar parte de los presupuestos e incluirse en la cuenta general de la Administración Pública de adscripción.

5. Los consorcios se registrarán por las normas patrimoniales de la Administración Pública a la que estén adscritos.

Artículo 123. Creación.

1. Los consorcios se crearán mediante convenio suscrito por las Administraciones, organismos públicos o entidades participantes.

2. En los consorcios en los que participe la Administración General del Estado o sus organismos públicos y entidades vinculados o dependientes se requerirá:

a) Que su creación se autorice por ley.

b) El convenio de creación precisará de autorización previa del Consejo de Ministros. La competencia para la suscripción del convenio no podrá ser objeto de delegación, y corresponderá al titular del departamento ministerial participante, y en el ámbito de los organismos autónomos, al titular del máximo órgano de dirección del organismo, previo informe del Ministerio del que dependa o al que esté vinculado.

c) Del convenio formarán parte los estatutos, un plan de actuación, de conformidad con lo previsto en el artículo 92, y una proyección presupuestaria trienal, además del informe

2. Partzuegoko administrazioek eman beharreko finantzaketa zehazteko, kontuan hartuko dira hala estatutuen edo hitzarmenen arabera dauden konpromisoak nola finantzaketa erreala. Horretarako, egindako ekarpen guztien benetako ordainketak aztertuko dira.

3. Edonola ere, urteko kontuen auditoretza egingo da, eta partzuegoa adskribatu zaion administrazioaren kontrol-organoaren erantzukizuna izango da hori.

4. Adskribatuta dauden administrazio publikoaren aurrekontuen parte izango dira partzuegoak, eta administrazio horren kontu orokorrean sartuko dira.

5. Adskribatuta dauden administrazio publikoaren ondare-arauek eraenduko dituzte partzuegoak.

123. artikulua. Sorrera.

1. Partzuegoak sortuko dira parte hartzen duten administrazioek, organismo publikoek edo entitateek sinatutako hitzarmenaren bitartez.

2. Estatuaren Administrazio Orokorrak edo hari lotutako edo haren mendeko organismo publiko eta entitateek parte hartzen duten partzuegoetan:

a) Partzuegoaren sorrerak lege bidez baimenduta egon behar du.

b) Sorrera-hitzarmenak Ministro Kontseiluaren aurretiazko baimena behar du. Hitzarmena sinatzeko eskumena ezingo da delegatu, eta parte hartzen duen ministerio-departamentuaren titularrari egokituko zaio, eta organismo autonomoen eremuan, berriz, organismoko zuzendaritza-organo gorenaren titularrari, aldeztatik txostena emana duela organismoa mendea edo lotuta duen ministerioak.

c) Hitzarmenean jasoko dira estatutuak, jarduketa-plana –92. artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera– eta hiru urtera begira egindako aurrekontu-aurreikuspena, eta, horrez

preceptivo favorable del Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas. El convenio suscrito junto con los estatutos, así como sus modificaciones, serán objeto de publicación en el «Boletín Oficial del Estado».

Artículo 124. Contenido de los estatutos.

Los estatutos de cada consorcio determinarán la Administración Pública a la que estará adscrito, así como su régimen orgánico, funcional y financiero de acuerdo con lo previsto en esta Ley, y, al menos, los siguientes aspectos:

- a) Sede, objeto, fines y funciones.
- b) Identificación de participantes en el consorcio así como las aportaciones de sus miembros. A estos efectos, en aplicación del principio de responsabilidad previsto en el artículo 8 de la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, los estatutos incluirán cláusulas que limiten las actividades del consorcio si las entidades consorciadas incumplieran los compromisos de financiación o de cualquier otro tipo, así como fórmulas tendentes al aseguramiento de las cantidades comprometidas por las entidades consorciadas con carácter previo a la realización de las actividades presupuestadas.
- c) Órganos de gobiernos y administración, así como su composición y funcionamiento, con indicación expresa del régimen de adopción de acuerdos. Podrán incluirse cláusulas que contemplen la suspensión temporal del derecho de voto o a la participación en la formación de los acuerdos cuando las Administraciones o entidades consorciadas incumplan manifiestamente sus obligaciones para con el consorcio, especialmente en lo que se refiere a los compromisos de financiación de las actividades del mismo.
- d) Causas de disolución.

gain, aldeko txosten nahitaezko bat, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak egina. Sinatutako hitzarmena, estatutuak eta horien aldaketak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

124. artikulua. Estatutuen edukia.

Partzuergo bakoitzaren estatutuetan zehaztuko dira zein administrazio publikori adskribatuko zaion partzuergoa, haren araubide organikoa, funtzionala eta finantzarioa, lege honetan aurreikusitakoaren arabera, bai eta alderdi hauek ere, gutxienez:

- a) Egoitza, xedea, helburuak eta eginkizunak.
- b) Partzuergoko partaideen identifikazioa eta kideen ekarpenak. Horretarako, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 8. artikuluan aurreikusitako erantzukizun-printzipioa aplikatuta, estatutuetan klausula batzuk txertatuko dira, partzuergoaren jarduerak mugatuko dituztenak partzuergoko entitateek finantzaketa-arloko konpromisoak edo edozein motatako konpromisoak betetzen ez badituzte, bai eta formula batzuk sartu ere, partzuergoko entitateek konprometitutako kopuruak ziurtatze aldera aurrekontuan jasotako jarduerak egin aurretik.
- c) Gobernu- eta administrazio-organoak, eta organo horien osaera eta funtzionamendua, erabakiak hartzeko araubidea espresuki adierazita. Beste klausula batzuk sartu ahalko dira, boto-eskubidea edo erabakigintzan parte hartzeko eskubidea aldi baterako etetea aurreikusten dutenak, administrazioek edo partzuergo-entitateek partzuergoarekiko obligazioak nabarmen betetzen ez badituzte edo; batez ere, partzuergoaren jarduerak finantzatzeko konpromisoek dagokienez.
- d) Desegiteko arrazoiak.

Artículo 125. Causas y procedimiento para el ejercicio del derecho de separación de un consorcio.

1. Los miembros de un consorcio, al que le resulte de aplicación lo previsto en esta Ley o en la Ley 7/1985, de 2 de abril, podrán separarse del mismo en cualquier momento siempre que no se haya señalado término para la duración del consorcio.

Cuando el consorcio tenga una duración determinada, cualquiera de sus miembros podrá separarse antes de la finalización del plazo si alguno de los miembros del consorcio hubiera incumplido alguna de sus obligaciones estatutarias y, en particular, aquellas que impidan cumplir con el fin para el que fue creado el consorcio, como es la obligación de realizar aportaciones al fondo patrimonial.

Cuando un municipio deje de prestar un servicio, de acuerdo con lo previsto en la Ley 7/1985, de 2 de abril, y ese servicio sea uno de los prestados por el Consorcio al que pertenece, el municipio podrá separarse del mismo.

2. El derecho de separación habrá de ejercitarse mediante escrito notificado al máximo órgano de gobierno del consorcio. En el escrito deberá hacerse constar, en su caso, el incumplimiento que motiva la separación si el consorcio tuviera duración determinada, la formulación de requerimiento previo de su cumplimiento y el transcurso del plazo otorgado para cumplir tras el requerimiento.

Artículo 126. Efectos del ejercicio del derecho de separación de un consorcio.

1. El ejercicio del derecho de separación produce la disolución del consorcio salvo que el resto de sus miembros, de conformidad con lo previsto en sus estatutos, acuerden su continuidad y sigan permaneciendo en el consorcio, al menos, dos Administraciones, o entidades u organismos públicos vinculados o dependientes de más de una Administración.

125. artikulua. Partzuergoa uzteko eskubidea baliatzeko arrazoiak eta prozedura.

1. Partzuergo bateko kideek, baldin eta partzuergo horri lege honetan edo apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoa aplikatu behar bazaio, edozein unetan utzi ahalko dute partzuergoa; betiere, partzuergoaren iraupenari epe-mugarik jarri ez bazaio.

Partzuergoak iraupen jakina baldin badu, epe hori amaitu baino lehen utz dezake partzuergoa kideetako edozeinek, baldin eta partzuergoko kideren batek ez badu bete bere estatutu-betebeharretakoren bat, eta, bereziki, partzuergoaren sortze-xedea lortzea eragozten bada; esaterako, ez bada ondare-funtsari ekarpena egiteko obligazioa bete.

Udalerrri batek zerbitzu bat emateari uzten dionean, apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoaren arabera, eta zerbitzu hori baldin bada udalerrria kide den partzuergoak ematen duenetako bat, udalerrriak partzuergoa utzi ahalko du.

2. Partzuergoa uzteko eskubidea idazki batez baliatu beharko da, zeina partzuergoko gobernu-organo gorenari jakinaraziko baitzaio. Idazki horretan jasoko dira, hala badagokio, uztea eragin duen ez-betetzea —partzuergoak iraupen jakina badu—, betetzeko errekerimendua aldeztatik egin izana, eta errekerimenduaren osteko betetze-epea igaro izana.

126. artikulua. Partzuergoa uzteko eskubidea baliatzearen ondorioak.

1. Partzuergoa uzteko eskubidea baliatzeak partzuergoa desagitea eragiten du, salbu eta gainerako kideek, estatutuetan aurreikusita dagoena betez, partzuergoari eustea erabakitzen badute, eta partzuergoan jarraitzen badute gutxienez bi administrazioak edota administrazio bati baino gehiagori lotutako edo haien mendeko gutxienez bi entitate edo organismo publikok.

2. Cuando el ejercicio del derecho de separación no conlleve la disolución del consorcio se aplicarán las siguientes reglas:

a) Se calculará la cuota de separación que corresponda a quien ejercite su derecho de separación, de acuerdo con la participación que le hubiera correspondido en el saldo resultante del patrimonio neto, de haber tenido lugar la liquidación, teniendo en cuenta el criterio de reparto dispuesto en los estatutos.

A falta de previsión estatutaria, se considerará cuota de separación la que le hubiera correspondido en la liquidación. En defecto de determinación de la cuota de liquidación se tendrán en cuenta, tanto el porcentaje de las aportaciones al fondo patrimonial del consorcio que haya efectuado quien ejerce el derecho de separación, como la financiación concedida cada año. Si el miembro del consorcio que se separa no hubiere realizado aportaciones por no estar obligado a ello, el criterio de reparto será la participación en los ingresos que, en su caso, hubiera recibido durante el tiempo que ha pertenecido al consorcio.

Se acordará por el consorcio la forma y condiciones en que tendrá lugar el pago de la cuota de separación, en el supuesto en que esta resulte positiva, así como la forma y condiciones del pago de la deuda que corresponda a quien ejerce el derecho de separación si la cuota es negativa.

La efectiva separación del consorcio se producirá una vez determinada la cuota de separación, en el supuesto en que ésta resulte positiva, o una vez se haya pagado la deuda, si la cuota es negativa.

b) Si el consorcio estuviera adscrito, de acuerdo con lo previsto en la Ley, a la Administración que ha ejercido el derecho de separación, tendrá que acordarse por el consorcio a quien se adscribe, de las restantes Administraciones o entidades u organismos públicos vinculados o dependientes de una Administración que permanecen en el consorcio, en aplicación de los criterios establecidos en la Ley.

2. Partzuergoa uzteko eskubidea baliatzeak partzuergoa desagitea ez dakarrenean, erregela hauek aplikatuko dira:

a) Uzte-kuota kalkulatu da, uzteko eskubidea baliatzen duenari dagokiona. Horretarako, likidazioa eginez gero ondare garbian legokiokoen saldoaren partaidetza hartuko da aintzat, kontuan hartuta Estatutuetan xedatutako banaketa-irizpidea.

Estatutuetan halakorik aurreikusita ez badago, likidazioan legokiokoeena hartuko da uzte-kuotatzat. Likidazio-kuotarik zehazten ez bada, kontuan hartuko dira bai uzteko eskubidea baliatu duenak partzuergoaren ondare-funtsari egindako ekarpenen ehunekoa bai urtez urte emandako finantzaketa. Partzuergoa uzten duen kideak ez badu ekarpenik egin, horretara beharturik ez zegoelako, hau izango da banaketa-irizpidea: partzuergoko kide izan den denboran diru-sarrerarik jaso badu, haietan izandako partaidetza.

Partzuergoak erabakiko du nola eta zer baldintzatan ordainduko den uzte-kuota, positiboa bada, bai eta uzteko eskubidea baliatzen duenari dagokion zorra nola eta zer baldintzatan ordainduko den ere, kuota negatiboa bada.

Partzuergoa benetan utziko da uzte-kuotaren zenbatekoa erabaki eta gero, kuota positiboa bada, edota zorra ordaindu eta gero, kuota negatiboa bada.

b) Baldin eta partzuergoa adskribatuta badago, legean ezarritakoaren arabera, uzteko eskubidea erabili duen administrazioari, partzuergoak erabaki beharko du zeini adskribatu, partzuergoan geratzen direnen artean, dela administrazio dela administrazio bati lotutako edo haren mendeko entitate edo organismo publiko. Legean ezarritako irizpideak aplikatuko dira horretarako.

Artículo 127. Disolución del consorcio.

1. La disolución del consorcio produce su liquidación y extinción. En todo caso será causa de disolución que los fines para los que fue creado el consorcio hayan sido cumplidos.

2. El máximo órgano de gobierno del consorcio al adoptar el acuerdo de disolución nombrará un liquidador que será un órgano o entidad, vinculada o dependiente, de la Administración Pública a la que el consorcio esté adscrito.

La responsabilidad que le corresponda al empleado público como miembro de la entidad u órgano liquidador será directamente asumida por la entidad o la Administración Pública que lo designó, quien podrá exigir de oficio al empleado público la responsabilidad que, en su caso, corresponda cuando haya concurrido dolo, culpa o negligencia graves conforme a lo previsto en las leyes administrativas en materia de responsabilidad patrimonial.

3. El liquidador calculará la cuota de liquidación que corresponda a cada miembro del consorcio de conformidad con lo previsto en los estatutos. Si no estuviera previsto en los estatutos, se calculará la mencionada cuota de acuerdo con la participación que le corresponda en el saldo resultante del patrimonio neto tras la liquidación, teniendo en cuenta que el criterio de reparto será el dispuesto en los estatutos.

A falta de previsión estatutaria, se tendrán en cuenta tanto el porcentaje de las aportaciones que haya efectuado cada miembro del consorcio al fondo patrimonial del mismo como la financiación concedida cada año. Si alguno de los miembros del consorcio no hubiere realizado aportaciones por no estar obligado a ello, el criterio de reparto será la participación en los ingresos que, en su caso, hubiera recibido durante el tiempo que ha pertenecido en el consorcio.

4. Se acordará por el consorcio la forma y condiciones en que tendrá lugar el pago de la cuota de liquidación en el supuesto en que ésta resulte positiva.

127. artikulua. Partzuergoa desagitea.

1. Partzuergoa desagiteak haren likidazioa eta azkentzea dakar. Kasu guztietan, desagiteko arrazoia izango da partzuergoaren sortze-xedeak bete izana.

2. Partzuergoko gobernu-organo gorenak, desagiteko erabakia hartzean, likidatzaile bat izendatuko du, zeina organo edo entitate bat izango baita, partzuergoa adskribatu zaion administrazio publikoari lotua edo haren mendekoa.

Enplegatu publikoari entitate edo organo likidatzailearen kide gisa dagokion erantzukizuna zuzenean bereganatuko du kide hura izendatu zuen entitateak edo administrazio publikoak, zeinak ofizioz eskatu ahal izango baitio erantzukizuna enplegatu publikoari, hala egokituz gero dolo, erru edo zabarkeria astunik izan bada, administrazio-legeetan ondare-erantzukizunari buruz aurreikusita dagoenaren arabera.

3. Likidatzaileak partzuergoko kide bakoitzari dagokion likidazio-kuota kalkulatu du estatutuetan xedatutakoaren arabera. Estatutuetan aurreikusita ez badago, honela kalkulatu da kuota hori: likidatu ondorengo ondare garbiaren saldoan legokiokkeen parte-hartzea, kontuan hartuta banaketa-irizpidea estatutuetan xedatutakoa izango dela.

Estatutuetan halakorik aurreikusita ez badago, kontuan hartuko dira hala partzuergoko kide bakoitzak partzuergoaren ondare-funtsari egindako ekarpenen ehunekoa nola urtez urte emandako finantzaketa. Partzuergoko kideren batek ez badu ekarpenik egin, horretara beharturik ez zegoelako, hau izango da banaketa-irizpidea: partzuergoko kide izan den denboran diru-sarrerarik jaso badu, haietan izandako partaidetza.

4. Partzuergoak erabakiko du nola eta zer baldintzatan ordaindu beharko den likidazio-kuota, emaitza positiboa den kasuetan.

5. Las entidades consorciadas podrán acordar, con la mayoría que se establezca en los estatutos, o a falta de previsión estatutaria por unanimidad, la cesión global de activos y pasivos a otra entidad del sector público jurídicamente adecuada con la finalidad de mantener la continuidad de la actividad y alcanzar los objetivos del consorcio que se extingue. La cesión global de activos y pasivos implicará la extinción sin liquidación del consorcio cedente.

5. Partzuergo-entitateek erabaki ahalko dute, estatutuetan xedatutako gehiengoaren bidez, edo, estatutuetan halakorik aurreikusten ez bada, aho batez, aktibo eta pasibo guztiak lagatzea sektore publikoko beste entitate juridikoki egoki bati, jarduerari eusteko eta azkenduko den partzuergoaren xedeak betetzeko. Aktibo eta pasibo guztiak lagatzeak berekin ekarriko du partzuergo lagatzailea azkentzea likidaziorik gabe.

CAPÍTULO VII

VII. KAPITULUA

De las fundaciones del sector público estatal

Estatuko sektore publikoko fundazioak

Artículo 128. Definición y actividades propias.

128. artikulua. Definizioa eta jarduera propioak.

1. Son fundaciones del sector público estatal aquellas que reúnan alguno de los requisitos siguientes:

1. Estatuko sektore publikoko fundazioak dira betekizun hauetakoren bat betetzen dutenak:

a) Que se constituyan de forma inicial, con una aportación mayoritaria, directa o indirecta, de la Administración General del Estado o cualquiera de los sujetos integrantes del sector público institucional estatal, o bien reciban dicha aportación con posterioridad a su constitución.

a) Hasierako eraketarako ekarpenean nagusi izatea, zuzen edo zeharka, Estatuaren Administrazio Orokorra edo Estatuko sektore publiko instituzionaleko edozein subjektu, edo eratu eta gero jasotzea halako ekarpen bat.

b) Que el patrimonio de la fundación esté integrado en más de un 50 por ciento por bienes o derechos aportados o cedidos por sujetos integrantes del sector público institucional estatal con carácter permanente.

b) Fundazioaren ondarearen ehuneko 50 baino gehiago Estatuko sektore publiko instituzionaleko subjektuek ekarritako edo lagatako ondasun edo eskubideek osatzea modu iraunkorrean.

c) La mayoría de derechos de voto en su patronato corresponda a representantes del sector público institucional estatal.

c) Fundazioaren patronatuan boto-eskubideen gehiengoa egokitzea Estatuko sektore publiko instituzionaleko ordezkari.

2. Son actividades propias de las fundaciones del sector público estatal las realizadas, sin ánimo de lucro, para el cumplimiento de fines de interés general, con independencia de que el servicio se preste de forma gratuita o mediante contraprestación.

2. Estatuko sektore publikoko fundazioen jarduerak dira irabazi-asmorik gabe egiten direnak interes orokorreko xedeak betetzeko, zerbitzua doan nahiz kontraprestazio baten bitartez ematen dela ere.

Únicamente podrán realizar actividades relacionadas con el ámbito competencial de las entidades del sector público fundadoras,

Para ciudadanos españoles, de los Estados miembros de la Unión Europea o de los demás Estados firmantes del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo o Suiza, el documento acreditativo de su identidad será el documento nacional de identidad o pasaporte en vigor. En el caso de los familiares de ciudadanos de Estados miembros de la Unión Europea o de otro Estado parte en el Acuerdo del Espacio Económico Europeo y los ciudadanos nacionales de terceros países residentes de larga duración, su identidad se acreditará mediante la tarjeta española de residencia de familiar de ciudadano de la Unión o de identidad de extranjero en la que debe constar su condición de residente de larga duración, respectivamente. Dichos documentos deben encontrarse en vigor.

En el caso de que telemáticamente se haya constatado que el pasajero cumple las condiciones para ser beneficiario de la subvención, éste podrá acreditar su identidad en el modo aéreo a través de los mismos

beste estatuetako herritarrek, Suitzakoek, hirugarren herrialde bateko horien senideek, baldin eta bizileku-eskubidea edo bizileku iraunkorreko eskubidea badute, eta iraupen luzeko egoiliar diren hirugarren herrialdeetako herritarrek.

Europar Batasuneko estatu kideetako eta Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten estatuetako herritarren senideen bizileku-eskubidea otsailaren 16ko 240/2007 Errege Dekretuaren arabera egiaztatuko da; dekretu hori Europar Batasuneko estatu kideetako eta Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten estatuetako herritarrek Espainian sartu, aske ibili eta bizitzeari buruzkoa da Aurreko paragrafoan aipatutako hirugarren herrialdeetako nazionalen iraupen luzeko bizileku-eskubidea Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan eta lege hori garatzen duen araudian xedatutakoaren arabera egiaztatuko da.

Espainiako, Europar Batasuneko estatu kideetako, Europako Esparru Ekonomikoko Akordioa sinatu duten gainerako herrialdeetako edo Suitzako herritarren kasuan, haien nortasunaren dokumentua indarrean dagoen nortasun agiri nazionala edo pasaporte izango da. Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoko Akordioa sinatu duen beste herrialde bateko herritarren senideen eta hirugarren herrialde bateko naziotasuna daukaten epe luzerako egoiliarren kasuan, Europar Batasuneko herritar baten senide izatearekin lotutako Espainiako bizileku-txartelaren bidez edo atzerritarren bizileku-txartelaren bidez –epe luzerako egoiliarra dela jaso beharko du– egiaztatuko dute beren nortasuna. Aipatutako dokumentuek indarrean egon behar dute.

Diru-laguntzaren onuraduna izateko baldintzak betetzen dituela telematikoki egiaztatu bada, bidaiariak hobaridun izateko eskubiderik ez duten gainerako bidaiariek bezala egiaztatu ahalko du bere nortasuna aireko garraibidean.

medios que los pasajeros sin derecho a bonificación. En este caso, el pasajero no tendrá que acreditar su condición de residente ni en facturación ni en embarque.

Dos. El porcentaje de bonificación aplicable en los billetes de transporte marítimo, con vigencia indefinida, para los trayectos directos, ya sean de ida o de ida y vuelta, entre las Comunidades Autónomas de Canarias y las Illes Balears y las Ciudades de Ceuta y Melilla, respectivamente, y el resto del territorio nacional será del 50 por ciento de la tarifa bonificable y en los viajes interinsulares será del 25 por ciento de dicha cuantía.

Tres. El porcentaje de bonificación en las tarifas de los servicios regulares de transporte aéreo de pasajeros, entre las Comunidades Autónomas de Canarias e Illes Balears y las Ciudades de Ceuta y Melilla, respectivamente, y el resto del territorio nacional, así como en los viajes interinsulares será, con vigencia indefinida, del 50 por ciento de la tarifa bonificable por cada trayecto directo de ida o de ida y vuelta.

A estos efectos, se considera trayecto directo de ida aquél que se realiza desde el aeropuerto o helipuerto del punto de origen en los archipiélagos, Ceuta o Melilla, al de destino final, distinto del anterior, en el territorio nacional y viceversa, sin escalas intermedias o con escalas, siempre que estas no superen las 12 horas de duración, salvo aquéllas que vinieran impuestas por las necesidades técnicas del servicio o por razones de fuerza mayor.

A los efectos de esta bonificación, del importe de la tarifa bonificable se deducirá el importe correspondiente a las prestaciones patrimoniales públicas a que se refieren las letras d), e) y f) del artículo 68.2 de la Ley 21/2003, de 7 de julio, de Seguridad Aérea, con independencia de que hayan sido repercutidas o no al pasajero. A tal efecto, dichas prestaciones patrimoniales aparecerán desglosadas en la documentación justificativa de los cupones de vuelo.

Cuatro. La condición de residente en las Comunidades Autónomas de Canarias y las

Kasu horretan, bidaiariak ez du egoiliarra dela frogatu beharko, ez fakturatzekoan, ezta hegazkineratze-eremuan ere.

Bi. Kanarietako eta Balear Uharteetako autonomia-erkidegoen eta Ceuta eta Melilla hirien, hurrenez hurren, eta Espainiako gainerako lurraldearen arteko ibilbide zuzenetan, joanekoak izan edo joan eta etorrikoak izan, itsas garraiorako txartelek % 50eko hobaria izango dute tarifan, indarraldi mugagabez; uharteen arteko bidaietan, berriz, % 25ekoa izango da hobaria.

Hiru. Kanarietako eta Balear Uharteetako autonomia-erkidegoen eta Ceuta eta Melilla hirien, hurrenez hurren, eta Espainiako gainerako lurraldearen arteko bidaiarien aireko garraioko zerbitzu erregularren zein uharteen artekoen tarifen hobari-ehunekoa, indarraldi mugagabez, hobaria jaso dezakeen tarifaren % 50ekoa izango da joaneko edo joan eta etorriko zuzeneko ibilbide bakoitzeko.

Ondorio horietarako, joaneko zuzeneko ibilbidetzat jotzen da uharteetako, Ceutako edo Melillako abiapuntuko aireportutik edo heliportutik Espainiako lurraldeko beste batera doana eta alderantzizkoa, tarteko eskalarik gabe edo eskalak eginda, baldin eta horiek gehienez 12 orduko iraupena badute, zerbitzuaren premia teknikoek edo ezinbesteko arrazoiek eraginik izan ezean.

Hobari horri dagokionez, hobaria jaso dezakeen tarifaren zenbatekotik Aire Segurtasunaren uztailaren 7ko 21/2003 Legearen 68.2 artikularen d), e) eta f) letretan aipatzen diren ondare-prestazio publikoei dagokien zenbatekoa kenduko da, bidaiariari jasanaraziak izan diren edo ez kontuan izan gabe. Horretarako, ondare-prestazio horiek banakatuta agertuko dira hegaldi-kupoiak justifikatzeko dokumentazioan.

Lau. Xedapen honetan araututako hobarien ondorioetarako, indarreko erroldatze-

Illes Balears y en las Ciudades de Ceuta y Melilla a los efectos de las bonificaciones reguladas en esta disposición se acreditará mediante el certificado de empadronamiento en vigor.

Reglamentariamente podrán establecerse otros medios para la acreditación de la condición de residente, en sustitución del previsto en este apartado o como adicionales de éste.

Cinco. En relación con la verificación del cumplimiento de los requisitos exigidos en esta disposición:

a) Los órganos gestores de las bonificaciones del Ministerio de Fomento podrán acceder a los servicios de verificación y consulta de datos de identidad, domicilio, residencia, nacionalidad y régimen de extranjería de la Plataforma de Intermediación del Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas con el fin de comprobar el cumplimiento de los requisitos para ser beneficiarios de la subvención y realizar las funciones de control encomendadas a dichos órganos, con las garantías previstas en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y en la Ley 58/2003, de 17 de diciembre, General Tributaria.

b) Los órganos gestores podrán facilitar por vía telemática a las agencias, las compañías aéreas o marítimas o sus delegaciones, que comercialicen los títulos de transporte bonificados y lo soliciten, la confirmación del cumplimiento de los requisitos para ser beneficiario de la subvención.

La cesión de datos prevista en los párrafos precedentes y su tratamiento, no requerirá el consentimiento de los interesados ni requerirá informarles sobre dicho tratamiento, de conformidad con lo previsto, respectivamente, en los artículos 11.2, letra a), y 5.5 de la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal.

La integración en el sistema telemático de acreditación de la residencia de los sistemas de

ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da Kanarietako eta Balear Uharteetako autonomia-erkidegoetako eta Ceutako eta Melilla hirietako egoiliar-izaera.

Erregelamendu bidez beste bide batzuk ezarri ahalko dira egoiliar izatea egiaztatzeko, zenbaki honetan xedatutakoa ordeztuz edota osatuz.

Bost. Xedapen honetan eskatutako betekizunak bete diren egiaztatzeari dagokionez:

a) Sustapen Ministerioaren hobariak kudeatzen dituzten organoek irispidea izango dute Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren Bitartekaritza Plataformako zerbitzuetara nortasunari, egoitzari, bizilekuari, nazionalitateari eta atzerriartasun-araubideari buruzko datuak egiaztatzeko eta kontsultatzeko, diru-laguntzaren onuradun izateko betekizunak betetzen dituztela egiaztatzeko, eta organo horiei agindutako kontrol-eginkizunak gauzatzeko; betiere, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean xedatutako bermeak betez.

b) Organo kudeatzaileek diru-laguntzaren onuradun izateko betekizunak betetzen dituztela baieztatu ahalko diete bide telematikoz hobaridun garraio-txartelak merkaturatzen dituzten eta hala eskatzen duten agentziei, aireko edo itsasoko konpainiei edota haien ordezkarietzi.

Aurreko paragrafoetan xedatutako datuak lagatzeko eta horiek tratatzeko, ez da interesdunen baimena jaso beharrik izango, ez eta interesdunei horren berri ematekorik ere; hori guztia, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2 artikulua a) letran eta 5.5 artikuluan, hurrenez hurren, xedatutakoaren arabera.

Penintsulakoak ez diren lurraldeetan bizitzeagatik diruz lagundutako aire- edo itsas

emisión de billetes y su utilización al emitir billetes subvencionados será obligatoria para todas las compañías, aéreas o marítimas, que emitan billetes aéreos o marítimos subvencionados por razones de residencia en territorios no peninsulares, en todos sus canales de venta.

En el caso de la incorporación a un mercado subvencionado de una nueva compañía de transporte regular aéreo o marítimo, ésta podrá emitir billetes aéreos o marítimos con derecho a subvención, sin necesidad de hacer uso del sistema telemático, durante un máximo de tres meses hasta la implantación efectiva de dicho sistema en todos sus canales de venta.

Seis. Cuando el cumplimiento de los requisitos exigidos para ser beneficiario de estas subvenciones no pueda acreditarse a través de la Plataforma de Intermediación conforme a lo previsto en el apartado Cinco, dichos requisitos se acreditarán por cualquiera de los medios previstos en la normativa de aplicación. A estos efectos, el certificado de empadronamiento se ajustará a lo previsto reglamentariamente en la normativa de desarrollo de estas bonificaciones.

Siete. Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado Uno de esta disposición, las bonificaciones previstas en él para familiares nacionales de terceros países beneficiarios del derecho de residencia o del derecho de residencia permanente y los ciudadanos nacionales de terceros países residentes de larga duración, que acrediten su condición de residente en las Comunidades Autónomas de Canarias e Illes Balears y en las Ciudades de Ceuta y Melilla, surten efectos a partir del 1 de abril de 2013.

Ocho. Además de las obligaciones impuestas por la normativa reguladora de las subvenciones al transporte marítimo y aéreo para residentes en Canarias, Illes Balears, Ceuta y Melilla y para familias numerosas y por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, las compañías aéreas y marítimas, como entidades colaboradoras, deben cumplir lo siguiente:

garraio txartelak jaulkitzen dituzten aire- edo itsas konpainia guztien txartelen jaulkipen-sistemek, nahitaez, bizileku-baimena egiaztatzeko sistema telematikoan integratuta egon beharko dute, eta diruz lagundutako txartelak jaulkitzerakoan sistema telematiko hori erabili beharko dute, beren salmenta-kanal guztietan.

Aireko edo itsasoko garraio erregularreko konpainia bat diruz lagundutako merkatu batean sartzen denean, diru-laguntza jasotzeko eskubidea ematen duten aire- edo itsas garraio txartelak sistema telematiko erabili behar izan gabe jaulki ahalko ditu, gehienez ere hiru hilabetez, aipatutako sistema bere salmenta-kanal guztietan ezarri arte.

Sei. Bost zenbakian aurreikusitako bitartekaritza-plataformaren bidez ezin bada egiaztatu diru-laguntzen onuradun izateko eskatutako betekizunak betetzen direla, aplikatu beharreko araudian xedatutako edozein bitartekoren bidez egiaztatuko dira betekizun horiek. Ondorio horietarako, erroldatze-ziurtagiria hobari horiek garatzeko araudian erregelamendu bidez xedatutakoari lotuko zaio.

Zazpi. Xedapen honen 1. zenbakian xedatutakoa ezertan eragotzi gabe, bertan aurreikusitako hobariak 2013ko apirilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak bizileku-eskubidearen edo bizileku iraunkorreko eskubidearen onuradun diren hirugarren herrialdeetako senide nazionalentzat eta iraupen luzeko bizilekua duten hirugarren herrialdeetako herritarrentzat; betiere, Kanarietako eta Balear Uharteetako autonomia-erkidegoetako eta Ceuta eta Melilla hirietako egoiliar direla egiaztatzen badute.

Zortzi. Kanarietan, Balear Uharteetan, Ceutan eta Melillan bizi diren herritarrei eta familia ugari zuzendutako itsas eta aire-garraiorako diru-laguntzen araudi erregulatzaileak ezarritako betebeharez eta azaroaren 17ko 38/2003 Legeak ezarritakoez gain, aire- eta itsas konpainiek, entitate laguntzaile gisa, ondorengo bete beharko dute:

a) En el caso de las compañías aéreas, presentarán las liquidaciones mensuales de los cupones bonificados volados durante un mes en el transcurso de los dos meses siguientes, salvo autorización expresa de la Dirección General de Aviación Civil por razones excepcionales. Estas liquidaciones podrán contener aquellos cupones volados en los seis meses anteriores que no hayan podido ser incluidos, por causas justificadas, en los ficheros de meses pasados.

En el caso de las compañías marítimas, presentarán las liquidaciones trimestrales en el transcurso de los dos meses siguientes, salvo autorización expresa de la Dirección General de la Marina Mercante por razones excepcionales. Estas liquidaciones podrán contener aquellos embarques bonificados en los seis meses anteriores que no hayan podido ser incluidos, por causas justificadas, en los ficheros de trimestres pasados.

b) En la documentación justificativa de la subvención desglosarán el precio y la identificación de todos los conceptos incluidos en el billete aéreo y marítimo, así como cualquier servicio adicional contratado por el pasajero incluido en el billete.

c) Levantarán un parte de incidente cuando un pasajero que posea un billete subvencionado no acredite su identidad y residencia de conformidad con la normativa aplicable. Los partes correspondientes a cada periodo de liquidación o, en otro caso, un certificado de inexistencia de incidentes en dicho período serán enviados al órgano gestor durante el periodo siguiente.

d) Cumplir con las obligaciones de registro establecidas reglamentariamente, así como registrar ante el órgano gestor, con anterioridad a su comercialización, las tarifas aéreas que incluyan servicios ajenos al transporte aéreo especificándolo en sus condiciones, así como los convenios, contratos o acuerdos de cualquier tipo, con sus anexos, adendas o modificaciones, susceptibles de generar la emisión de billetes subvencionados, con al

a) Aire-konpainien kasuan, hegazkinean ibiltzeko erabilitako kupoi hobaridunen hileroko likidazioak aurkeztuko dituzte, dagokion hilabetea bukatu ondorengo bi hilabeteko epean, Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiak, ezohiko arrazoiak direla-eta, baimen espresu bat eman ezean. Likidazio horietan, azken sei hilabeteetan erabilitako kupoi hobaridunak sartu ahal izango dira, arrazoi justifikatuak direla medio aurreko hilabeteetako fitxategietan barne hartu ahal izan ez badira.

Itsas konpainien kasuan, hiruhilekoko likidazioak aurkeztuko dituzte, dagokion hiruhilekoa bukatu ondorengo bi hilabeteko epean, Merkataritza Nabigazioko Zuzendaritza Nagusiak, ezohiko arrazoiak direla-eta, baimen espresu bat eman ezean. Likidazio horietan, aurreko hiruhilekoetako fitxategietan, arrazoi justifikatuak direla medio barne hartu ezin izan diren azken sei hilabeteetako ontziratze hobaridunak sartu ahal izango dira.

b) Diru-laguntza justifikatzeko dokumentazioan, aire- eta itsas txartelen prezioa eta barne hartutako kontzeptu guztiak banan-banan zehaztuko dira, baita bidaiariak kontratatutako edozein zerbitzu gehigarri ere, txartelean jaso baldin bada.

c) Diruz lagundutako txartel bat daukan bidaiariren batek bere nortasuna eta bizilekua aplikagarria den araudiaren arabera egiaztatzen ez baditu, konpainiek gorabehera parte bat egingo dute. Likidazio-aldi bakoitzari dagozkion parteak edo, ez badago, gorabeherarik ez dela izan adierazten duten ziurtagiriak organo kudeatzaileari bidaliko zaizkio, hurrengo likidazio-aldian.

d) Aireko garraioarekin zerikusirik ez duten zerbitzuak barne hartzen dituzten tarifak erregistratzeko betebeharrak, araudi bidez ezarritakoak, bete beharko dituzte, eta merkaturatu baino lehen organo kudeatzailearen aurrean erregistratu beharko dituzte, baldintzetan zehaztuz, baita diruz lagundutako txartelak ematea eragin dezaketen hitzarmen, kontratu edo edozein motatako akordioak ere, eranskinak, gehigarriak edo

menos un mes de antelación a la emisión del primer billete bonificado.

Nueve. Asimismo, las compañías marítimas y aéreas y sus agentes, incluidos los sistemas de reserva, habrán de conservar toda la información y documentación relativa a billetes bonificados tanto por razón de residencia no peninsular como por familias numerosas, cualquiera que sea su forma de almacenamiento, que acredite el importe de la subvención y el cumplimiento de los procedimientos recogidos reglamentariamente para la concesión de la subvención, a disposición del Ministerio de Fomento, durante el plazo de prescripción previsto en el artículo 39 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre.

A efectos de la liquidación de las bonificaciones aplicadas, las compañías marítimas, aéreas, y sus agentes, lo que incluye a los sistemas de reserva y a cualquier tercero que haya intervenido en la determinación de la tarifa bonificada, en el pago realizado por el pasajero o en la gestión o aplicación de la bonificación, estarán obligadas a prestar colaboración y facilitar cuanta documentación les sea requerida en relación con las tarifas comercializadas objeto de bonificación, las bonificaciones aplicadas, los pagos realizados por el pasajero y las liquidaciones efectuadas.

La negativa al cumplimiento de esta obligación se considerará resistencia, excusa, obstrucción o negativa a los efectos previstos en el artículo 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, sin perjuicio de las sanciones que, en su caso, pudieran corresponder.

Diez. Se autoriza al órgano gestor a modificar mediante resolución, tras dar trámite de audiencia a las compañías aéreas que exploten los mercados sujetos a subvención y a las principales asociaciones de aerolíneas, el contenido de los modelos de los anexos, en lo que afecta a las bonificaciones al transporte aéreo, del Real Decreto 1316/2001, de 30 de noviembre, por el que se regula la bonificación en las tarifas de los servicios regulares de transporte aéreo y marítimo para los residentes

aldaketak barne, lehenengo txartel hobariduna jaulki baino gutxienez hilabete lehenago.

Bederatzi. Era berean, itsas eta aire-konpainiek eta konpainietako agenteek, erreserba-sistemak barne hartuta, bai penintsulatik kanpo bizitzearekin, bai familia ugaria izatearekin lotutako txartel hobaridunei buruzko informazio eta dokumentazio guztia gorde beharko dute, Sustapen Ministerioak eskura izan dezan, horretarako bidea edozein izanda ere, diru-laguntzaren zenbatekoa eta diru-laguntza emateko araudi bidez jasotako prozedurak bete direla egiaztatzeko, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 39. artikuluan aurreikusitako preskripzio-epean.

Aplikaturako hobariak likidatzeari begira, itsas eta aire-konpainiek eta beren agenteek –barne hartuta erreserba-sistemak eta tarifa hobariduna zehazten, bidaiariak egindako ordainketan edo hobariaren aplikazioan edo kudeaketan esku hartu duen edozein hirugarren– lagundu eta hobariak jaso dituzten tarifa merkaturatuekin, aplikaturako hobariekin, bidaiariak egindako ordainketekin eta egindako likidazioarekin lotuta eskatzen zaien dokumentazio guztia eman beharko dute.

Betebehar hori betetzeari uko egitea erresistentziatzat, aitzakiatzat, oztopotzetzat edo ukapentzat hartuko da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikulua araberak, eta hala badagokio, zehapenak ezarri ahalko dira.

Hamar. Organo kudeatzaileari baimena ematen zaio Kanariar Uharteetako eta Balear Uharteetako autonomia-erkidegoetako eta Ceuta eta Melilla hirietako biztanleei zuzenduta aire- eta itsas garraioko zerbitzu erregularren tarifetan hobariak ematea arautzen duen azaroaren 30eko 1316/2001 Errege Dekretuaren eranskinetako ereduen edukia ebazpen baten bidez aldatzeko, aireko garraioaren hobariei dagokienez. Hala ere, aurretik diruz lagundu daitezkeen merkatuak

en las Comunidades Autónomas de Canarias y las Illes Balears y en las Ciudades de Ceuta y Melilla.

Once. No serán objeto de liquidación por las compañías marítimas y aéreas, ni de reembolso a éstas:

- a) Los billetes subvencionados con tarifas marítimas y aéreas que incluyan respectivamente servicios ajenos al transporte marítimo y aéreo, sean o no repercutidos al pasajero.
- b) Los billetes aéreos subvencionados emitidos bajo contratos, convenios o acuerdos de cualquier tipo que no hayan sido registrados y expresamente aprobados por la Dirección General de Aviación Civil.
- c) Los conceptos excluidos de bonificación por la normativa de aplicación, entre otros, las ofertas, descuentos, promociones o prácticas comerciales equivalentes, que deben ser aplicados de forma previa al cálculo de la subvención, así como los servicios opcionales del transporte comercializados por la compañía marítima y aérea.

Doce. Verificación de fichero informático de las liquidaciones solicitadas por las compañías marítimas con la relación de los embarques realmente producidos en puertos.

El procedimiento de inspección y control de las bonificaciones al transporte marítimo ha de incluir la comprobación de si los datos de los embarques contenidos en el fichero informático se corresponden con embarques reales producidos en los puertos. Para ello, las autoridades portuarias remitirán mensualmente a la Dirección General de la Marina Mercante la relación de todos los embarques reales producidos en los puertos correspondientes a los trayectos bonificables.

La relación mensual de todos los embarques reales producidos en cada puerto incluirá las relaciones de embarques de todas y cada una de las escalas que hayan tenido lugar durante ese período. Estas relaciones de embarques de cada trayecto serán recabadas directamente por las

ustiatzen dituzten aire-konpainiei eta airelinea-elkarte nagusiei entzun beharko die.

Hamaika. Itsas eta aire-konpainiek ez dituzte honako hauek likidatuko, eta itzuli ere ez zaizkie egingo:

- a) Itsas eta aire-garraioarekin zerikusirik ez daukaten zerbitzuak barne hartzen dituzten diruz lagundutako txartelak, bidaiariari zerbitzu horiek kobratu zaizkion edo ez kontuan hartu gabe.
- b) Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiak erregistratu eta espresuki onetsi ez dituen edozein motatako kontratu, itun edo hitzarmenen arabera jaulkitako diruz lagundutako txartelak.
- c) Araudi aplikagarriak hobarietatik kanpo utzitako kontzeptuak; besteak beste, eskaintzak, deskontuak, sustapen edo merkataritza-jarduera baliokideak –horiek guztiak diru-laguntza kalkulatu aurretik aplikatu behar dira–, baita itsas edo aire-konpainiek merkaturatutako hautazko garraio-zerbitzuak ere.

Hamabi. Itsas konpainiek eskatutako likidazioak jasotzen dituen fitxategi informatikoa egiaztatzea, kaietan benetan izandako ontziratzeen zerrenda barne.

Itsas garraiorako hobariak ikuskatzeko eta kontrolatzeko prozeduraren barruan, fitxategi informatikoan jasotako ontziratzeak kaietan benetan izandako ontziratzeekin bat datozen egiaztatu beharko da. Horretarako, portu-agintaritzek, hileroko, hobariak izan ditzaketen ibilbideei lotuta, kaietan izandako ontziratze guztien zerrenda bidaliko diote Merkataritza Nabigazioko Zuzendaritza Nagusiari.

Kai bakoitzean izandako ontziratze guztien hileroko zerrendan, epe horretan egin diren eskala guztietako ontziratzeen zerrenda zehatza jasoko da. Ibilbide bakoitzeko ontziratzeen zerrenda horiek portu-agintaritzek edo kasuan-kasuan eskumena daukaten

autoridades portuarias u organismos competentes en cada caso o, en su defecto, remitidas electrónicamente a éstas por las compañías marítimas. La remisión se realizará en el tiempo y forma que determine la Dirección General de la Marina Mercante, pero en todo caso, deberán haber sido recibidas por el órgano competente antes de que la nave llegue a su destino.

No podrá bonificarse ningún embarque contenido en el fichero informático que no esté incluido en la relación de embarques reales, salvo que se demuestre error u omisión.

Trece. El Gobierno dictará las normas de aplicación y desarrollo de las bonificaciones al transporte, marítimo y aéreo, regular de pasajeros.»

Disposición final undécima. Modificación de la Ley 20/2015, de 14 de julio, de ordenación, supervisión y solvencia de las entidades aseguradoras y reaseguradoras.

Se modifica el apartado 2 de la disposición final vigésima primera de la ley 20/2015, de 14 de julio, de ordenación, supervisión y solvencia de las entidades aseguradoras y reaseguradoras, que queda redactado en los siguientes términos:

«2. No obstante, la disposición transitoria decimotercera y la disposición adicional decimosexta entrarán en vigor el día siguiente al de su publicación. Las disposiciones transitorias cuarta y décima entrarán en vigor el 1 de septiembre de 2015. La disposición final novena entrará en vigor el 1 de julio de 2016. La disposición final duodécima entrará en vigor al día siguiente de la publicación de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.»

organismoek zuzenean bildutakoak izango dira, edo, bestela, itsas konpainiek elektronikoki haiei bidaliak. Merkataritza Nabigazioko Zuzendaritza Nagusiak zehaztutako epean eta forman helaraziko dira zerrendak, baina, nolana ere, organo eskudunak itsasontzia helmugara iritsi aurretik jaso behar ditu.

Fitxategi informatikoan ezin da benetako ontziratzeen zerrendan ez dagoen ontziratzerik jaso, oker edo omisioren bat gertatu dela frogatu ezean.

Hamahiru. Gobernuak bidaiarien itsasoko eta aireko garraio erregularrerako hobariak aplikatu eta garatzeko arauak emango ditu.»

Azken xedapenetatik hamaikagarrena. Aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenaren uztailaren 14ko 20/2015 Legea aldatzea.

Aldatu egiten da Aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenaren uztailaren 14ko 20/2015 Legearen azken xedapenetatik hogeita batgarrenaren 2. zenbakia, eta honela idatzita geratzen da:

«2. Dena den, hamahirugarren xedapen iragankorra eta hamaseigarren xedapen gehigarria argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean. Laugarren eta hamargarren xedapen iragankorrak 2015eko irailaren 1ean jarriko dira indarrean. Azken xedapenetatik bederatzigarrena 2016ko uztailaren 1ean jarriko da indarrean. Azken xedapenetatik hamabigarrena indarrean jarriko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea argitaratu eta biharamunean.»

Disposición final duodécima. Restitución o compensación a los partidos políticos de bienes y derechos incautados en aplicación de la normativa sobre responsabilidades políticas.

El reconocimiento de los derechos previstos en la Ley 50/2007, de 26 de diciembre, de modificación de la Ley 43/1998, de 15 de diciembre, de restitución o compensación a los partidos políticos de bienes y derechos incautados en aplicación de la normativa sobre responsabilidades políticas del periodo 1936-1939, así como la tramitación y resolución de los procedimientos iniciados al amparo de dicha Ley, seguirán suspendidos hasta que se verifiquen las condiciones que permitan atender las prestaciones que la Ley reconoce sin menoscabo de la financiación de otras actuaciones públicas prioritarias.

Una vez se constate la concurrencia de las expresadas condiciones, el Gobierno aprobará el Reglamento de desarrollo de la Ley, el cual fijará un nuevo plazo para la presentación de las solicitudes de restitución o compensación.

Disposición final decimotercera. Referencias normativas.

Las referencias hechas a Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común se entenderán hechas a la Ley del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o a la Ley de Régimen Jurídico del Sector Público, según corresponda.

Disposición final decimocuarta. Título competencial.

1. Esta Ley se dicta al amparo de lo dispuesto en el artículo 149.1.18.^a de la Constitución Española que atribuye al Estado competencia exclusiva sobre las bases régimen jurídico de las Administraciones Públicas, así como al

Azken xedapenetatik hamabigarrena. Erantzukizun politikoei buruzko araudia aplikatuz alderdi politikoei konfiskatutako ondasun eta eskubideak itzultzea edo konpentsatzea.

1936-1939 bitarteko erantzukizun politikoei buruzko araudia aplikatuz konfiskatutako ondasun eta eskubideak alderdi politikoei itzuli edo konpentsatzeko abenduaren 15eko 43/1998 Legea aldatzen duen abenduaren 26ko 50/2007 Legean aurreikusitako eskubideen onarpena eta lege horren babespean hasitako prozeduren izapideak eta ebazpena etenda geratuko dira Legeak onartzen dituen prestazioez arduratzeko aukera ematen duten baldintzak egiaztatzen diren arte. Dena dela, lehentasunezko beste jarduketa publiko batzuk finantzatu ahalko dira.

Azaldu diren baldintzak gertatzen direla egiaztatu ondoren, Gobernuak Legea garatzeko erregelamendua onartuko du. Erregelamendu horrek beste epe bat ezarriko du itzuli edo konpentsatzeko eskariak aurkezteko.

Azken xedapenetatik hamahirugarrena. Arau-erreferentziak

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeari egindako erreferentziak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari edo Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeari egindakotzat joko dira, zer dagokion.

Azken xedapenetatik hamalagarrena. Eskumen-titulua.

1. Lege hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.artikuluko 18. zenbakian xedatutakoaren babespean ematen da, zeinaren arabera Estatuari baitagokio eskumen eskusiboa administrazio publikoen araubide juridikoaren

amparo de lo previsto en el artículo 149.1.13.^a, relativo a las bases y coordinación de la planificación general de la actividad económica, y del artículo 149.1.14.^a, relativo a la Hacienda Pública general.

2. No tiene carácter básico y se aplica exclusivamente a la Administración General del Estado y al sector público estatal lo previsto en:

- a) La subsección 2.^a referida a los órganos colegiados de la Administración General del Estado de la sección 3.^a del capítulo II del Título preliminar.
- b) El Título I relativo a la Administración General del Estado.
- c) Lo dispuesto en el Capítulo II relativo a la organización y funcionamiento del sector público institucional estatal, el Capítulo III de los organismos públicos estatales, el Capítulo IV de las Autoridades administrativas independientes, el Capítulo V de las sociedades mercantiles estatales, en el artículo 123.2 del Capítulo VI relativo a los Consorcios, los artículos 128, 130, 131, 132, 133, 135 y 136 del Capítulo VII de las fundaciones del sector público estatal y el Capítulo VIII de los fondos carentes de personalidad jurídica, todos ellos del Título II relativo a la organización y funcionamiento del sector público institucional.
- d) Lo previsto en las disposiciones adicionales: cuarta, sobre adaptación de entidades y organismos estatales, quinta, sobre gestión compartida de servicios comunes en organismos públicos estatales, sexta, sobre medios propios, séptima, sobre el registro electrónico estatal de órganos e instrumentos de cooperación, undécima, sobre conflictos de atribuciones intraministeriales, duodécima, sobre Autoridades Portuarias y Puertos del Estado, decimotercera, relativa a las entidades de la Seguridad Social, decimocuarta, sobre la organización militar, decimoquinta, relativa al personal militar, la decimosexta, sobre Servicios territoriales integrados en las Delegaciones del

oinarriei buruz, eta, horrez gain, Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluko 13. eta 14. zenbakien babespean ematen da, horiek, hurrenez hurren ekonomia-jardueraren plangintza orokorraren oinarri eta koordinazioari eta Ogasun Publiko Orokorrari buruzkoak baitira.

2. Honako pasarte hauetan ezarritakoa ez da oinarritzakoa izango, eta soil-soilik Estatuaren Administrazio Orokorrari eta Estatuako sektore publikoari aplikatuko zaie:

- a) Atariko tituluko II. kapituluko 3. atalean Estatuaren Administrazio Orokorreko kide anitzeko organoei buruz 2. azpiatalean esandakoa.
- b) Estatuaren Administrazio Orokorrari buruz I. tituluaren esandakoa.
- c) Estatuako sektore publiko instituzionalaren antolaketa eta funtzionamenduari buruz II. kapituluaren esandakoa, Estatuako organismo publikoei buruz III. kapituluaren, administrazio-agintaritza independenteei buruz IV. kapituluaren, Estatuako merkataritza-sozietateei buruz V. kapituluaren, partzuergoei buruz VI. kapituluko 123.2 artikuluan, Estatuako sektore publikoko fundazioei buruz VII. kapituluko 128., 130., 131., 132., 133., 135. eta 136. artikuluetan, eta nortasun juridikorik gabeko funtsei buruz VIII. kapituluaren –horiek guztiak Estatuako sektore publiko instituzionalaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko II. titulukoak–.
- d) Honako hauetan esandakoa: Estatuako entitate eta organismo publikoak egokitzeari buruz laugarren xedapen gehigarrian, erakunde publikoen zerbitzu erkideen kudeaketa partekatuari buruz bosgarren xedapen gehigarrian, baliabide propioei buruz seigarren xedapen gehigarrian, lankidetzako organo eta -tresnen Estatuako erregistro elektronikoki buruz zazpigarren xedapen gehigarrian, ministerio barruko eskudantzia-gatazkei buruz hamaikagarren xedapen gehigarrian, Portu Agintaritzei eta Estatuako Portuei buruz hamabigarren xedapen gehigarrian, Gizarte Segurantzako entitateei buruz hamahirugarren xedapen gehigarrian, antolaketa militarri

Gobierno, decimoséptima, relativa a la Agencia Estatal de la Administración Tributaria, la decimoctava relativa al Centro Nacional de Inteligencia, la decimonovena relativa al Banco de España y la vigésima relativa al Fondo de Reestructuración Ordenada Bancaria.

Disposición final decimoquinta. Desarrollo normativo de la Ley.

Se faculta al Consejo de Ministros y a los Ministros de Presidencia y de Hacienda y Administraciones Públicas, en el ámbito de sus competencias, para dictar cuantas disposiciones reglamentarias sean necesarias para el desarrollo de la presente Ley, así como para acordar las medidas necesarias para garantizar la efectiva ejecución e implantación de las previsiones de esta Ley.

En el plazo de tres meses desde la entrada en vigor de esta Ley, mediante Orden del Ministro de Hacienda y Administraciones Públicas, se desarrollará lo previsto en el artículo 85 sobre la supervisión continua.

Disposición final decimosexta. Precedencias en actos oficiales.

Por Real Decreto del Consejo de Ministros, a propuesta del Presidente del Gobierno, se determinarán las precedencias de los titulares de los poderes constitucionales y de las instituciones nacionales, así como las de los titulares de los departamentos ministeriales y de los órganos internos de estos en relación con los actos oficiales.

Disposición final decimoséptima. Adaptación normativa.

1. En el plazo de un año a partir de la entrada

buruz hamalagarren xedapen gehigarrian, pertsonal militarri buruz hamabosgarren xedapen gehigarrian, Gobernuaren Ordezkaritzetan integratutako lurralde-zerbitzuei buruz hamaseigarren xedapen gehigarrian, Zerga Administrazioako Estatu Agentziari buruz hamazazpigarren xedapen gehigarrian, Inteligentzia Zentro Nazionalari buruz hemezortzigarren xedapen gehigarrian, Espainiako Bankuari buruz hemeretzigarren xedapen gehigarrian, eta Banku Berregituraketa Ordenaturako Funtzari buruz hogeigarren xedapen gehigarrian.

Azken xedapenetatik hamabosgarrena. Legearen arau-garapena.

Ahalmena ematen zaie Ministro Kontseiluari eta Lehendakariitzako eta Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako ministroei, zeini bere eskumen-eremuan, lege hau garatzeko beharrezko diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzaten, eta orobat lege honen aurreikuspenak egiazki betearazteko eta ezartzeko behar diren neurriak erabaki ditzaten.

Lege hau indarrean jarri eta hiru hilabeteko epean, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako ministroaren aginduz, 85. artikuluan etengabe gainbegiratzeari buruz aurreikusita dagoena garatuko da.

Azken xedapenetatik hamaseigarrena. Lehentasunak ekitaldi ofizialetan.

Ministro Kontseiluaren errege-dekretu bidez, Gobernuako presidentek hala proposatuta, ekitaldi ofizialetan konstituzio-botereen eta erakunde nazionalen ministerio-departamentuen eta departamentu horietako barne-organoen titularren lehentasunak arautuko dira.

Azken xedapenetatik hamazazpigarrena. Arau-egokitzapenak.

1. Lege hau indarrean jarri eta urtebeteko

en vigor de la Ley, se deberán adecuar a la misma las normas estatales o autonómicas que sean incompatibles con lo previsto en esta Ley.

2. Los consorcios creados por una ley singular aprobada por las Cortes Generales con anterioridad a la aprobación de esta Ley seguirán rigiéndose por su legislación especial hasta que se produzca la citada adaptación normativa.

Disposición final decimoctava. Entrada en vigor.

1. La presente Ley entrará en vigor al año de su publicación en el «Boletín Oficial del Estado», a excepción del punto cuatro de la disposición final quinta, de modificación de la Ley 22/2003, de 9 de julio, Concursal, de los puntos uno a once de la disposición final novena, de modificación del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre y la disposición final decimosegunda, de restitución o compensación a los partidos políticos de bienes y derechos incautados en aplicación de la normativa sobre responsabilidades políticas que entrarán en vigor a los veinte días de su publicación en el «Boletín Oficial del Estado», y el punto doce de la misma disposición final novena, que lo hará a los seis meses de la citada publicación en el «Boletín Oficial del Estado».

2. No obstante, entrarán en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial del Estado» la disposición final primera, de modificación de la Ley 23/1982, de 16 de junio, reguladora del Patrimonio Nacional, la disposición final segunda, de modificación del Real Decreto-Ley 12/1995, de 28 de diciembre, sobre medidas urgentes en materia presupuestaria, tributaria y financiera, los puntos uno a tres de la disposición final quinta, de modificación de la Ley 22/2003, de 9 de julio, Concursal, la disposición final séptima,

epean, egokitu egin beharko dira lege honetan ezarritakoarekin bateraezinak diren Estatuko eta autonomia-erkidegoetako arauak.

2. Lege hau onartu aurretik Gorte Nagusiek onartutako lege berezi baten bidez sortutako partzuegoak beren legeria bereziak eraenduko ditu, araudia azaldu den bezala egokitu arte.

Azken xedapenetatik hemezortzigarrena. Indarrean jartzea.

1. Lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta urtebetera jarriko da indarrean, honako pasarte hauek izan ezik: azken xedapenetatik bosgarrenaren 4. puntua, Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legea aldatzekoa; azken xedapenetatik bederatzigarrenaren bat eta hamaika bitarteko zenbakidun puntuak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategina aldatzekoak; eta azken xedapenetatik hamabigarrena, erantzukizun politikoei buruzko araudia aplikatuz alderdi politikoei konfiskatutako ondasun eta eskubideak itzuli edo konpentsatzekoa –horiek guztiak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeieguneko epean jarriko dira indarrean–, eta azken xedapenetatik bederatzigarrenaren 12. puntua, zeina Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta sei hilabetera jarriko baita indarrean.

2. Hala ere, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko dira indarrean honako hauek: azken xedapenetatik lehena, Ondare Nazionala Arautzen duen ekainaren 16ko 23/1982 Legea aldatzekoa; azken xedapenetatik bigarrena, Aurrekontu, Zerga eta Finantza arloko Premiazko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 12/1995 Errege Lege Dekretua aldatzekoa; Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legea aldatzeko azken xedapenetatik bosgarrenaren bat eta hiru bitarteko zenbakidun puntuak;

de modificación de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y la disposición final undécima, de modificación de la Ley 20/2015, de 14 de julio, de ordenación, supervisión y solvencia de las entidades aseguradoras y reaseguradoras.

3. La disposición final décima de modificación de la disposición adicional décima tercera de la Ley 17/2012, de 27 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2013, entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial del Estado», sin perjuicio de que los apartados Uno, primer y segundo párrafo; Dos; Tres, párrafos primero y segundo; Cuatro; Cinco, párrafos primero a cuarto y, Seis, surtirán efectos a partir del 1 de enero de 2013, y de lo dispuesto en el apartado Siete.

Por tanto,

Mando a todos los españoles, particulares y autoridades, que guarden y hagan guardar esta ley.

Madrid, 1 de octubre de 2015.

FELIPE R.

El Presidente del Gobierno,
MARIANO RAJOY BREY

azken xedapenetatik zazpigarrena, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra aldatzekoa, eta azken xedapenetatik hamaikagarrena, Aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenaren uztaillaren 14ko 20/2015 Legea aldatzekoa.

3. Estatuaren 2013. urteko Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen hamahirugarren xedapen gehigarria aldatzeari buruzko azken xedapenetatik hamargarrena indarrean jarriko da Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean. Horrek ez du eragotziko, hala ere, lehen zenbakiko lehen eta bigarren paragrafoek, bigarren zenbakiak, hirugarren zenbakiko lehen eta bigarren paragrafoek, laugarren zenbakiak, bosgarren zenbakiko lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren paragrafoek eta seigarren zenbakiak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera izatea ondorioak; eta ez du eragotziko halaber zazpigarren zenbakian xedatutakoa.

Beraz,

Espaniar guztiei agintzen diet, partikular zein agintari, lege hau gorde eta gordearaz dezatela.

Madriren, 2015eko urriaren 1ean.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
MARIANO RAJOY BREY

BOEn argitaratutako bertsioa

Euskarazko itzulpena: IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala / Maramara